

ar**o**a

euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduzko
marko estrategikoa

Bergarako udala – Euskararen plan estrategikoa 2024-2027

**Udalbatzak 2024ko uztailaren 22an
onartua**



**Bergarako
Udala**

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

Edukia

1.	Sarrera	4
1.1.	Udal legea (2/2016 legea)	4
1.2.	Euskararen normakuntza, Bergarako udalaren konpromisoa.....	5
1.3.	Udalaren gobernu plana 2023-2027	6
1.4.	Genero berdintasuna	6
2.	Metodologia	7
2.1.	Aurrelanak	7
2.2.	Diagnostikoa	7
2.3.	Diseinua	8
2.4.	Plana inplementatzeko egitura	8
3.	Diagnostikoa	9
3.1.	Adierazle orokorrak	9
3.1.1.	Gaitasuna.....	9
3.1.2.	Familia transmisioa.....	10
3.1.3.	Etxeko erabilera.....	12
3.1.4.	Kaleko erabilera.....	12
3.1.5.	Adierazle orokorren inguruko aurreikuspenak	13
3.2.	Datuak arloka	13
3.2.1.	Euskararekiko jarrerak / euskalgintzaren aktibazioa.....	13
3.2.2.	Hezkuntza formala.....	13
3.2.3.	Aisialdia eta kirola	14
3.2.4.	Kultura eta sormena	14
3.2.5.	Euskalduntzea / euskaraz trebatzea.....	14
3.2.6.	Ikus entzunezkoak eta sare sozialak.....	15
3.2.7.	Sozioekonomia: merkataritza eta lan mundua	15
3.2.8.	Udal administrazioa.....	15
3.3.	Galdetegiaren emaitzak	16
3.4.	2018-2022rako finkatu ziren irizpideen eta egitasmo nagusien balorazioa	16
4.	Plan estrategikoen diseinua 2024-2027	17
4.1.	Nahi estrategikoa, misioa eta ikuspegia.....	17
4.1.1.	Nahi estrategikoa	17
4.1.2.	Misioa	17
4.1.3.	Ikuspegia.....	17
4.2.	Aroako ekintza plana	18

4.2.1.	Gobernantza	18
4.2.2.	Jarrerak / Motibazioa	21
4.2.3.	Ezagutza / Gaitasuna	24
4.2.4.	Erabilera / Elkarreragina.....	26
4.2.5.	Ikerketa.....	29
5.	Eranskinak	31
5.1.	Herritarrei pasatutako galdetegiaren emaitzak	30
5.2.	2018-2022rako finkatu ziren irizpideen eta egitasmo nagusien balorazioa	34
5.3.	Diagnostiko orokorra.....	39

1. Sarrera

2003an onartu zuen Bergarako Udalak Euskara Biziberritzeko lehenengo Plan Estrategikoa, 2003-2007 eperakoa. Harrez geroztik lau-bost urtero diseinatu izan dira planak; azkena 2018-2022 tarterakoa.

Udalek bi plan onartzen dituzte hizkuntza normalizazioaren arloan, biak Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraiki:

- **Udaleko erabilera plana:** 2023an onartu zen eta 2027ra arte egongo da indarrean. Udal administrazio barruko hizkuntza-politika eta ekintza-plana jasotzen dira dokumentu honetan.
- **Herrira begirako euskara plana.** Euskara Sustatzeko Erabilera Plana (ESEP) 2018-23 dago indarrean. Hurrengo lau urteetarako plana diseinatu behar da orain eta Jaurlaritzak “Aroa Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko marko estrategikoa” onetsi du ESEP ordezkatzeko.

Bi planen helburua da bai udalean bai herrian ohiko hizkuntza euskara izatea.

Bigarren plan hori da, beraz, hemen jasotzen dena.

Planaren oinarriak hauek dira: Eusko Jaurlaritzak onartutako AROA, 2016ko Udal Legea eta Bergarako udalak hizkuntza normalkuntzan duen konpromisoa.

1.1. UDAL LEGEA (2/2016 LEGEA)

7. artikulua.– Toki-erakundearen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez.

1. Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskararen erabilera normalizatzeko beharrezkoak diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio komunitatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.
2. Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz.
3. Udalerriek dagokie, halaber, beren lurralde- eta eskumen-eremuko izen ofizialak finkatzea eta, oro har, toponimoen eta leku geografikoen gaineko prozedura arautu eta haiek onartzea, horrek ezertan galarazi gabe Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 10. artikuluan eta aplikatu beharrekoa den gainerako legerian ezarritakoa. Izen horien idazkeraz den bezainbatean, dagokion hizkuntzaren arau akademikoak errespetatuko dira, eta euskararen kasuan, Euskaltzaindiak ezarritako indarrean dauden hizkuntza-arauak.
4. Udalerriek euskararen erabileraren eremuan aitortuak dituzten eskumenak baliatu ahal izango dituzte ordenantzak, erregelamenduak eta jarduerak onartuz.
5. Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gaindiko bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko eta pribatuekin.

6. Toki-erakundeek beren arteko harremanetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazio publikoekiko harremanetan euskara gero eta gehiago erabil dadin sustatuko dute; horretarako, adostasuna bilatuko dute, eta, edonola ere, hizkuntza ofizial bat nahiz bestea erabili ahal izango dute, beste hizkuntza ofizialerako itzulpenik aurkeztu beharrik izan gabe.
7. Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.
8. Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:
 - a) Kontratuaren xedek bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.
 - b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
 - c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio titularri exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.

1.2. EUSKARAREN NORMAKUNTZA, BERGARAKO UDALAREN KONPROMISOA

Atal honetan konpromiso horren oinarria eta ulertzeko modua garatu dugu:

Zergatik euskararen normalkuntza?

1. Hizkuntza ekologia. Hizkuntza aniztasuna, aberastasun unibertsala. Hizkuntza denek eskaintzen diote aberastasuna gizadiari (hizkuntza zaindu beharreko ondare kulturala da) eta Euskaldunen komunitatea da euskarari geroa zurta diezaiokeen bakarra. Horretarako ezinbesteko da hizkuntza txikiei berezko erabilera guneak (arnasguneak) bermatzea, hizkuntza txikian egin daitekeena horretan egitea...
2. Gizartearen borondatea eta nahia. Euskal gizarteak behin eta berriz agertu du bere hizkuntzari eusteko eta garatzeko nahia.
3. Berdintasun printzipioa. Ukipen egoeran dauden hizkuntzen oreka bilatu behar da: txikiari babes neurriak... Euskara indartuz soilik lor liteke euskaldunek ere nahi duten tokian euskaraz jarduteko aukera izatea.

Euskararen normalkuntza nola?

1. Efikaziaz. Euskararen iraunkortasuna, euskara indarberritzeko ezinbestekotzat jotzen dena, bermatuko duena. Helburua lortzen lagunduko duena, lortzea bermatuko duena. Politika ekintza aktiboan oinarrituko duena. Euskara nagusi izango den erabilera guneak sortuko dituena, Euskararen arnasguneak.
2. Koherentziaz... Praktikan gauzatuko dena, mezu eta diskurtsuetatik haratago, eguneroko jardunean... Guk beste batzuei eskatzen badiegu guk ere bete...
3. Euskalduntasun irekia. Euskara-maila, identitate-sentipen, ideologia... guztikoei irekia, eleaniztasunera begirakoa, adostasun eta atxikimendu zabalekoa, motibatzailea, norbanakoaren hizkuntza hautua errespetatuko duena, bizikidetzarako ore...

4. Elkarlanean. Euskara bizindartzeko ahaleginetan diharduten erakunde, elkarte, herritar... guztiekin lankidetzan.

1.3. UDALAREN GOBERNU PLANA 2023-2027

Urte hasieran aurkeztu zuen udal-gobernuak agintaldirako plana eta [\(\[https://bergara.eus/sites/default/files/dokumentu-fitxategi/bergara_gobernu_plana_23-27.pdf\]\(https://bergara.eus/sites/default/files/dokumentu-fitxategi/bergara_gobernu_plana_23-27.pdf\)\)](https://bergara.eus/sites/default/files/dokumentu-fitxategi/bergara_gobernu_plana_23-27.pdf) bertan bost lan-ildo nagusi jasotzen dira:

- Arnasguneak.
- Euskara.
- Zaintza eta bakardadea.
- Etxebizitza.
- Merkataritza eta alde zaharra.

Euskarari dagokionez zehaztu den helburua da 2027rako erabilera %50ekoa izatea. Egitasmoei dagokinez, berriz, honakoak jaso dira:

- PPlan estrategiko berria diseinatzea hurrengo lau urteetarako.
- Mundu digitalean euskararen erabilera handitzeko egitasmoak garatzea.
- Lan arloan euskara sustatzeko HARIXA programa sendotzea.
- Euskararen aktibaziorako gizarte sare zabal eta parte-hartzailea sortzea.
- 2027rako kirol elkarteekin batera euskaren erabilera helburuak definitu eta konpromisoa hartu.
- Euskararen historia soziala jaso eta zabaltzeko egitasmoa.

Egitasmook, jakina, jasota daude plan honetan ere.

1.4. GENERO BERDINTASUNA.

Plana aztertu da Berdintasun departamentuarekin eta, besteak beste, honako helburu eta egitekoak finkatu dira gai honi dagokionez:

- Genero berdintasunaren ikuspegia bermatzea planaren lerro guztietan.
- Berdintasun Zerbitzuarekin lankidetzara iraunkorra bideratzea, zeharlerroko departamentuen lankidetzarako foroetan eta, bereziki, Jabekuntza eskolaren eta Emakumeen etxearen inguruan, euskararen babesgune izan daitezen.
- Antolatzen diren egitasmoetan herriko eragile feministak kontuan hartzea.
- Adierazleak finkatzerakoan genero berdintasunari buruzkoak ere kontuan hartzea.
- Generoaren araberrako datu bereziak jasotzea, bai euskararen egoerari buruzko datu-bilketa orokorretan eta baita ekintzen ebaluazioetan ere.
- Sortzen diren lantaldeetan genero parekidetasuna bermatzea.
- Ikerlanetan, kultur-ekimenetan eta abarretan emakumeen papera ikusaraztea.
- Euskararen erabilera ez sexista bermatzea.
- Egitasmoak antolatzerakoan, zaintzaren alderdia eta familia eredu desberdinak aintzat hartzea.

2. Metodologia

AROaren plana egiteko metodologiak lau urrats nagusi izan ditu:



2.1. AURRELANAK

Aurrelanetan prozesu osoa diseinatu zen: kronograma zehatza, herritarrek parte hartzeko une eta formatuak, prozesua aurrera eramateko egiturak eta rolak, eta komunikazio lanak.

Hona hemen prozesurako sortu ziren egiturak eta horien egitekoak:



TALDE ERAGILEA

Prozesuaren koordinazioa eta komunikazioa.

- Euskara zinegotzia
- Udaleko Euskara zerbitzua
- Emuneko aholkulariak



KONTRASTE TALDEA

Prozesuan zehar egiten denaren analisia, interpretazioa eta kontrastea.

Ofizio edo arlo ezberdinetako pertsonak, prozesuari bestelako ikuspegi bat eman diezaioketenak.



SAIO IREKIAK: HERRITARRAK/ERAGILEAK

Arlo bakoitzeko erronkak eta ideiak identifikatu.

Hezkuntza, aisialdia, kirola, kultura, bizilagun berriak, lan mundua, merkataritza, ikusentzunezkoak eta mundu digitala, euskalgintza...

2.2. DIAGNOSTIKOA

- Datu soziolinguistiko eta sozioekonomiko batzuk batu eta horien gaineko analisia egin zen.
- Herritarrei galdetegia bidali zitzaizen herrian euskararen egoerari buruz duten iritzia jasotzeko. 212 herritarrek hartu zuten parte.
- Euskara Zerbitzuak aurreko plan estrategikoaren gaineko balorazioa egin zuen arlorik arlo.
- Egindako diagnostikoa Kontraste Taldean aurkeztu zen 2024ko apirilaren 8an. Kontraste Taldeak, horren gaineko hausnarketa bat egin eta gero, zenbait foku edo eragin eremu identifikatu zituen.

2.3. DISEINUA

Plana diseinatzen hasteko, bi saio ireki egin ziren herritarrekin eta eragileekin.

- Lehenengo saio irekia 2024ko maiatzaren 6an egin zen. Saio horretan, diagnostikoa eta Kontraste Taldearen ondorioak aurkeztu ziren, eta zenbait ariketa egin ziren Kontraste Taldeak identifikatutako eragin eremuetatik abiatuta, hainbat esparrutan euskararen erabilerari lotutako indarguneak, hutsuneak eta esparruen arteko loturak identifikatzeko.
- Bigarren saio irekia 2024ko maiatzaren 30ean egin zen. Saio horretara, proposamen xeheago bat eraman zen, bai kontraste taldean eta bai lehenengo saio irekian jasotakoekin osatutakoa. Bi ariketa egin ziren saioan: batetik, helburu, erronka eta lan ildo horiek egokiak ziren ikusi eta aldaketak proposatu eta, bestetik, lan ildo bakoitza lantzeko ideiak proposatu.

Bi saio irekietan jasotakoa Kontraste Taldean aurkeztu zen 2024ko ekainaren 19an. Kontraste taldeak eduki hori aztertu eta beren ekarpenak egin zituzten.

Ondoren, Talde Eragileak eman zion forma prozesuan zehar jasotakoari, eta plan zehatza diseinatu zuen, AROA markora egokituta.

Herritarren arloko teknikariek planari egindako ekarpenak ere jaso ziren.

2.4. PLANA INPLEMENTATZEKO EGITURA

Prozesuan zehar, garrantzia eman zaio gobernantzari eta antolamenduari ere, AROA markoaren zati garrantzitsua baita hori. Hala saio irekietan nola kontraste taldean, plana aurrera eramateko egiturez hitz egin zen, eta hainbat ideia jaso ziren. Besteak beste ideia horietan oinarrituta egin du Talde Eragileak plana inplementatzeko egituren proposamena.

3. Diagnostikoa

Diagnostikoan, honako informazio hau bildu zen:

- **Adierazle orokorrak:** gaitasuna, familia transmisioa, etxeko erabilera, kaleko erabilera
- **Datuak arloka:** Euskararekiko jarrerak/euskalgintzaren aktibazioa, Hezkuntza formala, Aisialdia eta kirola, Kultura eta sormena, Euskalduntzea/euskaraz trebatzea, Ikusentzunezkoak eta sare sozialak, Sozioekonomia, merkataritza eta lan mundua eta Udal administrazioa
- **Herritarrei pasatutako galdetegiaren erantzunak**
- **2018-2022ko egitasmoen balorazioa.**

Hemen jasotzen dena diagnostiko osoago baten laburpena da. Hemengo informazioa zehaztasun handiagorekin irakurtzeko (ikus 5.3. eranskina)


3.1. ADIERAZLE OROKORRAK

Euskararen osasun-egoeraren adierazle nagusiak gaitasuna, familia-transmisioa edo lehen hizkuntza, erabilera eta euskararekiko jarrera eta atxikimendua dira. Adierazle hauek denak Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Adierazle Sistemari (EAS) jasotzen dira. Kasu batzuetan, Euskal Herriko datu orokorrak azaltzen dira eta, beste batzuetan udalerrietakoak. Adierazle horiek guztiak elkarren arteko lotura eta elkarreragina dute.

3.1.1. Gaitasuna


Gaitasun orokorra, antzera.

Azken 10 urteetan ez da aldaketa nabarmenik izan portzentaia orokorrean. 2021eko datuak: %67 euskaldunak, %20 erdaldunak eta %13 elebidun hartzaileak (ulertu bai, hitz egin ez).



Gaitasuna adin-tarteka: aldaketa esanguratsuak.

- Eskolari esker, 20 urtez azpikoetan praktikan ez dago euskaraz ezer ez dakienik eta %5 dira euskaldun hartzaileak.
- 20 urtetik gorakoetan nabarmen hazten da erdaldunen eta euskaldun hartzaileen proportzioa, Euskal Herritik kanpora jaiotakoak direla eta. Adin-tarte garrantzitsu batean (30-40 urtekoetan) euskaraz ez dakitenak ia laurdena dira.



Gaitasun erlatiboa: umeek euskaraz errazago; gazteek gaztelaniaz errazago.

Euskaldunek errazen hitz egiten duten hizkuntza. Erabileran gehien eragiten duen faktoreetako bat da. Ez dugu Bergarako informazio orokorrik, baina EAEn euskaldunen %27 moldatzen da euskaraz errazago.

Ikus-entzunezkoei buruzko galdetegi bat pasa zitzaien orain dela bi urte LH4tik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei. Galdetegi horretan ikasleen hizkuntza ezaugarriak ere jasotzen ziren, besteak beste, zein hizkuntzatan moldatzen ziren errazen:

- DBH eta Batxilergoko ikasleen artean gehiago dira gaztelaniaz errazago moldatzen direnak. LH4tik LH6ra arteko ikasleen artean gehiago dira euskaraz errazago moldatzen direnak: LHn %54k euskaraz errazago; DBHn %29k.


3.1.2. Familia transmisioa

Lehen hizkuntza euskara soilik dutenak, jaisten.

Faktore garrantzitsua da euskaraz errazago egiteko, eta azken 10 urteetan praktikan adin-tarte guztietan jaitsi da lehen hizkuntza euskara soilik dutenen ehunekoa (2021ean %47). Lehen hizkuntza moduan gaztelania soilik dutenen ehunekoa ez da gehiegi aldatu (%39), baina igotzen doa gaztelania eta euskara (%9) edo beste hizkuntza bat dutenen ehunekoa (%5).


Arrazoi nagusiak bi dira:

- Lehen hizkuntza euskara dutenen proportziorik handiena 60 urtetik gorakoetan dago. Horiek hil ahala lehen hizkuntza euskara dutenen proportzioa jaisten ari da.
- Migrazioa: EAEz kanpo jaiotakoen kopurua handitu da eta, gainera EAEn jaiotakoen kopurua murriztu egin da.



Familia transmisioa oraingo guraso-belaunaldietan: guraso erdaldunen kopuruak gora (2 urteko umeen gurasoengandik jasotako informazioa)

- Azken urteetan jaitsi egin da lehen hizkuntzatzat euskara hutsa jaso duten ume txikien portzentaia: bai gurasoen eta umearen artekoa eta baita anai-arreben artekoa.
- Horren arrazoiak guraso gazteen gaitasunean izandako jaitsiera da: bi gurasoak erdaldunak diren familiak 10 puntu igo dira azken urteetan. (Une honetan Bergarako ikastetxeetako ikasleen %17 jatorri atzeritarreko familietakoak dira)




Positiboa: bi gurasoak euskaldunak direnean euskara hutsa transmititzen da ia erabat.

- Bi gurasoak euskaldunak direnean, %90ean bi gurasoek euskara soilik transmititzen dute eta anai-arreben arteko harremana ere euskaraz izaten da.
- Guraso batek ondo dakienean eta besteak ulertzen duenean, euskaraz dakien guraso horrek euskaraz egiten dio umeari, baina anai-arreben hizkuntza erabilera nabarmen samar jaisten da. Guraso euskalduna emakumea bada errazago bermatzen da hizkuntza transmisioa.
- Guraso batek badaki eta besteak ez badaki, guraso-ume eta anai-arreben arteko erabilera areago jaisten da.

3.1.3. Etxeko erabilera


- Euskara hutsaren erabilera jaisten jarraitzen du kasik adin-tarte guztietan eta 1991tik hona inoizko baxuena da (%35). Zaharrenak eta gazteenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak
- Gaztelania hutsarena antzera samar dago (%43).
- Bi hizkuntzak erabiltzea (%20) eta beste bat erabiltzea (%4) ari da indartzen. Ugaritu egin da bi hizkuntzen erabilera.
- Pentsatzekoa da guraso gazteen hizkuntza gaitasuna murrizten doan heinean erabilera ere apaltzen joango dela. Hala ere, nabarmendu behar da bi gurasoak euskaldunak direnean beti euskaraz egiten dutenen ehunekoa igo egin dela.



3.1.4. Kaleko erabilera

Erabilera orokorrean, beheranzko joera txiki bat.

- Nahiko egonkor azken urteetan (%45), baina beheranzko joera batekin.
- Generoaren arabera emaitza desberdinak daude (emakumeek gehiago erabiltzen dute) eta aldea, gainera, nabarmenago da 0-14 urte bitartekoetan eta, batez ere, 15-24 urte bitartekoetan. Ahulgune nagusietako bat da adin tarte horietako mutilen erabilera apala. Hizkuntza hegemonikoa hartzen dute gizonetako orokorrean, estatus horren bila.



3.1.5. Adierazle orokorren inguruko aurreikuspenak

Zaharrenen euskara adierazleak (lehen hizkuntza, etxeko erabilera...) apaltzen joango dira hiltzen direnak baino datu apalagoak baitituzte haiek baino gazteagoek.

Migrazioa: Alde batetik, kontuan hartzeko faktorea izango da gazte euskaldunen emigrazioa baina eragin handieneko faktorea inmigrazioa izango da, herriko populazioaren adin-piramidea eta lan-merkatuaren egoera kontuan hartuta, inmigrazioak goraka jarraituko duela aurreikusten baita.

3.2. DATUAK ARLOKA

Diagnostikoa osatzeko esparru hauetako datuak jaso dira: euskararekiko jarrerak/euskalgintzaren aktibazioa, hezkuntza formala, aisialdia eta kirola, kultura eta sormena, euskalduntzea/euskaraz trebatzea, ikus-entzunezkoak eta sare sozialak, sozioekonomia (merkataritza eta lan mundua) eta udal administrazioa.

3.2.1. Euskararekiko jarrerak / euskalgintzaren aktibazioa

- Euskaraldiaren lehenengo edizioan Bergarako partehartzea Euskal Herriko altuena izan zen proportzioan. Hurrengo bi edizioetan behera egin zuen. Norbanakoak: 2018an 3.423 partaide eta 2022an 2.982. Ariguneak: 2018an 218 eta 2022an 192.
- Partaidetza:
 - 2020an, adibidez, parte har zezaketenen (euskaldunen + ia euskaldunen) % 32k hartu zuen parte Euskaraldian.
 - Emakumeak gizonak baino gehiago izan dira edizio guztietan.
 - Ahobizi gehiago izan ditugu edizio guztietan: ahobizirik, %83; Belarriprestak %17.

3.2.2. Hezkuntza formala

- Derrigorrezko Hezkuntza eta Batxilergoa: D ereduari.
- Lanbide Heziketa:

- Mariaren Lagundian eskuhartze sozialeko bi ziklo: D ereduan
- Migel Altuna: Industriara begirako formazioa, A eta D ereduan. Azken hamarkadetan D ereduak beheranzko joera izan du erdi-mailako zikloetan eta goi-mailako zikloetan egonkorrago dago.
- HHI/EPA: Ikasleen %98 jatorri atzerritarrekoa. Eskolak gaztelaniaz dira.
- Jatorri atzerritarreko familietako ikasleak 0 urtetik Batxilergora artean %17 dira. Euskara-indargarriak: Ikastetxeetan bertan edo eskola orduetatik kanpo eskaintzen diren indargarrietara joaten den ikasle-kopurua nabarmen hazi da azken urteetan (10 urtean, bikoiztu egin da) eta ematen du aurrera ere hazten jarraituko duela.
- Berriki neurketak egin ditugu ikastetxeetako eskola-irteeretan. 6-18 urte bitarteko ikasleak kontuan hartuz eta jaso den euskararen erabilera guztira %26koa izan da. Oso emaitza baxua da kontuan hartuta azken urteetan kaleko erabilera %60 ingurukoa izan dela 0-14 urtekoen artean eta %45 ingurukoa 15-24 urtekoen artean.

3.2.3. Aisialdia eta kirola

18 urtez azpikoentzako eskaintza:

- Aisialdia (Gaztelekua, Aidau haurren zerbitzua, udaleku irekiak eta Txapligu). Eskaintza osoa euskaraz.
- Kirola: Eskaintza gehiena euskaraz
 - Elkarateak:
 - Eskubaloia, pilota, igeriketa, ziklismoa, karatea, piraguismoa, gimnasia erritmikoa, hockeya, mendia eta futbol-eskola. Eskaintza osoa euskaraz.
 - Futbol federatua eta saskibaloia: %82 inguru euskaraz
 - Udala: Eskaintza osoa euskaraz.

3.2.4. Kultura eta sormena

Kultura:

- Elkarateak: Musika eskola, antzerki eskola, bertso eskola, euskal dantzak eta orfeoia: Eskaintza osoa praktikan euskaraz (Musika Eskolan 2 ikasle ari dira gaztelaniaz ikasten).
- Udala:
 - Zinema: %13 euskaraz, gehienak haurrentzakoak. Haurrentzako filmen %40 euskaraz.
 - Antzerkiak, hitzaldiak... %90 euskaraz
 - Liburutegiko maileguak: Erabiltzaile helduek gaztelaniaz irakurtzen dute batez ere (%85 inguru). Umeek hartu dituzten liburuen %61 inguru izan dira euskaraz.


Entitate pribatuak: Ez dugu daturik

3.2.5. Euskalduntzea / euskaraz trebatzea

- Azken urteetan murriztu egin da maila baxuko ikastaroetan izena emandakoen proportzioa eta gora egin du goi-mailakoenak.
- Oro har, ikasleen artean gehiago dira emakumeak (%65 inguru)
- Entitateek ordaindutako ikasleak. Azken urteetan administrazioko langileak dira matrikula ordainduta joaten diren ikasle bakarrak. Orain dela 10 urte joaten ziren ikasle batzuk

enpresek matrikula ordainduta eta orain dela 5-6 urte IRALE programaren barruan ere irakasle asko ibili ziren euskaltegian.

- Berriketan programa: euskara praktikatu nahi duten 35 pertsona eta laguntza eskaintzen dieten 12 lagun dabilta gaur egun. Orain dela 10 bat urte 45-50 inguru ziren praktikatu nahi zutenak.



3.2.6. Ikus entzunezkoak eta sare sozialak

UEMAk ikus-entzunezkoen buruzko galdetegi bat pasatu zien 2022. urtean LHko 4. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei.

Txatean eta zuzeneko harremanetan erabiltzen duten hizkuntzaren artean ez dago alde nabarmenik.

Telabista eta sare sozialetan gaztelaniaz kontsumitzen dituzte edukiak nabarmen, are gehiago, DBHko eta batxilergoko ikasleek.

3.2.7. Sozioekonomia: merkataritza eta lan mundua

Merkataritza. Ez da jaso adierazle berriturik.

Lan-mundua:

- Euskara-planak dituzten enpresak: 5
- Harixa egitasmoan parte hartzen duten entitateak: 38
- Lan-praktiketako hizkuntza erabilera:
 - Euskaraz: %41
 - Bietan: %24
 - Gaztelaniaz: %32
- Bergarako enpresek Udalera bidaltzen dituzten euskarazko idatziak: %42
- Bergarako enpresek Udalari egindako euskarazko aurrekontuak: % 36

3.2.8. Udal administrazioa

Hasieran esan dugun bezala, Udalak aparteko euskara-plana du onartuta baina, udaleko planak lotura duenez herrikoarekin, hainbat adierazle jaso ditugu txostenean (2023ko informazioa).

- Udal barruko funtzionamendua:
 - Idatzizkoa: %94 euskaraz
 - Ahozkoa udal barruko bileratan: ia %100 euskaraz

- Kanpo harremanak:
 - Idatziz. Kanporako idatziak euskaraz edo ele bietan izaten dira:
 - Herritarrei udaletik bidalitako idatzien % 27 izan dira euskaraz. Entitateentzako idatzietan euskararen erabilera handiagoa da: enpresei, %35; Erakunde publikoei, %49.
 - Herritarrek udalera Internet bidez bidali dituzten idatzien %53 izan dira euskaraz. Paperean bidalitakoen daturik ez dugu baina baxuagoa da. Enpresek Udalera bidalitakoen %47 dira euskaraz eta erakunde publikoen idatzien %49.
 - Ahoz. Herritarren %58k egiten du ahoz euskaraz udal zerbitzuetan

3.3. GALDETEGIAREN EMAITZAK

Bi galdetegi sortu genituen eduki berarekin, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. 212 erantzun jaso ditugu. Galdetegia bete duten gehienak euskaldunak dira eta emakumeak.

Herritar gehienek ustez azken urteetan behera egin du euskararen erabilera. Eskolan, kultura eskaintzan, familian eta haurren artean ikusten dute erabilera indartsuen; eta ahulen, berriz, gazteen artean eta sare sozialetan.

Zazpi arlo zehaztu genituen galdetegian bertan eta zein arlotan eragin beharko litzatekeen ere galdetu zaie eta lehentasun handienekotzat haur eta nerabeen hizkuntza-ohituretan eragitea jarri dute. Gainerako esparruetan ez dago desberdintasun handirik jaso diren erantzunen artean (ikus eranskina).

3.4. 2018-2022RAKO FINKATU ZIREN IRIZPIDEEN ETA EGITASMO NAGUSIEN BALORAZIOA

Taula batean dago jasota 2018-2022 eperako Plan Estrategikoan finkatutako irizpide nagusien betetzeari buruzko balorazioa eta Udalak euskararen arloan bideratzen dituen jarduera nagusien balorazioa arloz arlo (ikus 5.2. eranskina).

4. Plan estrategikoaren diseinua 2024-2027

Arlo ezberdinak identifikatu dira prozesu osoan zehar (aktibazioa, irakaskuntza, kirola eta aisia...) eta horiek izan ditugu hizpide nagusi. Arlo bakoitzaren barruan erronka nagusi batzuk zehaztu dira eta horietan eragiteko ekintzak proposatu dira. Lanketa hau ondoren AROAko markora eraman dugu eta hurrengo puntuan azalduko da.

Bergarako 2024-2027 Euskararen Plan Estrategikorako zehaztutako erronka eta ekintzak azaltzen dira hemen.

4.1. NAHI ESTRATEGIKOA, MISIOA ETA IKUSPEGIA

4.1.1. Nahi estrategikoa

Bergaran euskararen ezagutza eta erabilera sendotzea, herritarrak eta herriko eragileak saretu eta aktibatuta, herriko ohiko hizkuntza euskara izan dadin.

4.1.2. Misioa

Bergarako herritar zein eragile guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datozen lau urteetarako euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko, eta munduko hizkuntza-aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatu eta egokituko da plana, metodologia parte-hartzaile eta irekia baliatuz, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean

4.1.3. Ikuspegia

Planaren ikuspegi nagusia, datozen lau urteei begira, hauxe da:

- Bergaran derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten guztiek euskaraz jakitea bermatuko da.
- Euskara ikasteko, lantzeko eta aberasteko dinamika indartuko da, bakoitzak duen mailatik abiatuta.
- Bergaran gizarte esparru guztietan euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren gero eta herritar gehiago hurbilduko dira euskarara.
- Behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak emango zaizkie eta, euskara haiena ere badela sentituko dute.
- Euskaraz bizitzeko aukerak zabalagoak izango dira; euskarak babesgune gehiago izango ditu herri osoan.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izango dute eta euskaldunak ahaldunduago egongo dira.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egingo da.

4.2. AROAKO EKINTZA PLANA: ARDATZAK, HELBURUAK, ETA EKINTZAK.

Jarraian datozen tauletan jaso ditugu planaren iraunaldian lortu nahi diren helburuak eta bideratuko diren egitasmoak honako ardatzetan banatuta: Gobernantza, Jarrerak-Motibazioa, Ezagutza-Gaitasuna, Erabilera-Elkarreragina eta Ikerketa.

Ezkerreko zutabearen ekimen horiek nagusiki zein eremuri eragingo dioten jaso dugu eta eskuinekoan berriz, zenbait azalpen edo lanketan zehar jaso diren iruzkin edo proposamenak.

4.2.1. Gobernantza

HELBURUA: EUSKARAREN ALDEKO ERAGILEAK MODU KOORDINATUAN ARITZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
UDALA	<p>Udal mailako koordinazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Agintaldi-planaren koordinaziogunea - Herritarren arloko bilera. <p>Sortuta dauden beste mahai batzuekin elkarlana:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola inklusiboaren mahaia • Kulturartekotasunaren mahaia ... <p>Genero ikuspegia txertatu planean eta egiten diren ekintzetan.</p>	<p><i>Agintaldi planean aurreikusita dago egitasmoen jarraipenerako dinamika propioa.</i></p>
HERRIA	<p>Herri mailako koordinazioa.</p> <p>Une honetan oinarrizko koordinazio-gunea Euskalgintzako eragile nagusiak biltzen dituen da: Jardunek, Udal Euskaltegiak, UEMAK eta Udaleko Euskara Zerbitzuak osatutakoa.</p>	<p><i>Oinarrizko koordinazio-gune gisa egokia izan liteke; hala ere, aztertzekoa da aurrerantzean herriko plan desberdinetako eragileak kontuan hartuko lituzkeen koordinazio gune zabalago bat osa litekeen eta zein eginkizunekin.</i></p>
DEBAGOIENA UEMA GIPIZKOA EUSKAL HERRIA	<p>Herriz gaindiko koordinazioa. Hainbat programa bideratzen dira udalerriz kanpoko eragileekin koordinatuta. Koordinazio iraunkorra dago Debagoiena (Mankomunitateak koordinatuta), UEMA eta Gipuzkoa (Foru Aldundiaren Udalekin programa) mailan eta aldizkakoa Nazio-mailan.</p>	
HERRIA_ARLOKO KOORDINAZIO- GUNEAK	<p>Arloko koordinazio guneak kudeatu:</p> <p>Hezkuntza Lan-mundua Euskalduntzea...</p>	
HERRITARRAK	<p>Euskararen aktibaziorako sarea sortzea (*Agintaldi planean jasotzen da)</p> <p>Euskaraldia 2025 ekimena baliatuz, euskararen inguruko herri aktibazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Euskaraldian egon den bigarren geruza aktibatutako behar da. Talde eragile bat sortu eta aktibazioa bultzatu.</i>

	<p>bultzatzea izango da helburua. Konkretuki, hurrengo Euskaraldiaren nahietako bat antolaketa bera auzolan parte-hartzailean burutzea da. Hori lortzeko, talde naturalak ahal den neurrian aktibatzea planteatzen da: kuadrillak, laneko lagun-taldeak, etab.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Euskaltzaleen Topagunearen 3. kongresuan ere antzeko helburua jasota dago datozen urteetarako. Euskaraldia ere Udalak eta Jardunek elkarrekin bideratzen dutenez, ekimen hau ere elkarlanean bideratuko da.</i>
HERRITARRAK - GAZTEAK	<p>Gazte euskaltzaleen sarea osatzea. Identifikatu Bergarako euskaltzale aktiboak eta talde bat sortu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gazte arrazializatuekin ere egin lanketa. Erreferenteak aurkitu. <p>*Nerabeekin ekintza zehatzak egin daitezke urtean zehar euskararen alde – gaztelekuetatik abiatuta. Ez da talde finko bezala planteatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Arrasateko TTAK taldea aipatu da adibide bezala. AEDren barruan sortua.</i> <ul style="list-style-type: none"> ○ <i>Jardunen jiran antolatzea?</i> ○ <i>Herritarren aktibazio orokorrarekin lotuta?</i>

HELBURUA: EUSKARA GUZTIONA IZATEKO MODUA LANTZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
UDALA	<p>Euskara biziberritzearen aldeko eta gizarte-berdintasunaren aldeko politikak uztartu</p> <p>Elkarrengandik elikatu, gizartean behar handienak dituzten herritarrek ere euskara haiena ere badela senti dezaten.</p>	<p><i>Balizko langaiak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Laguntzen gaia</i> • <i>Tarifa sozialak</i> • <i>Euskara ikastearen doakotasuna...</i>
HERRIKO GIZARTE MUGIMENDUAK	<p>Gizarteko beste mugimendu sozialekin – bereziki ekitatea eta elkarbizitza defendatzen dutenekin–, begirada interseksional batetik, lankidetzaz bidezko ireki, marko inklusiboagoa erdiesteko.</p>	<p><i>Balizko gaiak eta eragileak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Genero-berdintasuna, migrazioa...: Ndank-Ndank, Martxanterak...</i> • <i>Eskola inklusiboaren mahaia, Kulturartekotasunaren mahaia...</i>

HELBURUA: ENTITATEENTZAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
ENITATEAK	<p>Jardunen jarduera orokorra diruz laguntzeko hitzarmena.</p>	
	<p>Nazio-mailako entitateak diruz laguntzea: Hizkuntza eskubideen Behatokia, Euskalgintzaren Kontseilua.</p>	

HELBURUA: EUSKARAREN EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGIN ETA ZABALTZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
NEURKETAK	Jarraipenerako adierazle nagusien panela osatu eta jaso.	<i>Datu desagregatuak jaso</i>
	Kaleko erabileraren neurketa egin eta emaitzak kaleratu.	<i>Datu desagregatuak jaso eta genero ikuspegia kontuan izan emaitzetan</i>
BALORAZIOA	Urteko balorazio-txostenak egin eta zabaldu	

EGITURA ETA KOORDINAZIO GUNEA

Planak bideratzeko egiturak udalekoak eta udalaz aparteak dira.

- UDALEKOAK

- **Udaleko Euskara Zerbitzua.** Lau langile daude Euskara Zerbitzuan: zerbitzuburua, bi teknikari eta itzultzailea. Edonola ere, Udalaren irizpidea da udal departamentu guztiek dutela euskara sustatzeko ardura.
- **Udal Euskaltegia.** Une honetan 5 irakasle daude.

- UDALAZ APARTEAK

- **Jardun euskara elkarteak.** Bere jarduerarik handiena hurrei begirakoa da une honetan (aisia, euskara errefortzuak...) baina helduentzako hainbat jardura ere jorratzen ditu: Euskaraldia, Berriketarak, kultur jarduerak...
- **Egitura sektorialak:**
 - Ikastetxeetako euskara arduradunak. Ikastetxeek euren planak diseinatu behar izaten dituzte eta arduradunak izaten dituzte liberazio txiki batekin.
 - Enpresetako euskara planetako teknikariak. Une honetan Bergaran 4 enpresatan daude euskara planak eta horietan EMUN aholkularitza enpresak ematen du zerbitzua. Horietaz gain, HARIXA hitzarmenean 38 entitate daude eta horiei ere ematen die aholkularitza zerbitzua.
- **Boluntarioak:** Aurreko puntuetan egitura profesionalak aipatu ditugu baina aipatu eta oso kontuan hartu beharreko multzoa da boluntarioena. Arlo gehienetan daude lan-boluntarioa egiten duten pertsonak.

Koordinazio guneak, berriz, herrikoak eta herriz gairiko guneak dira.

- HERRIKO KOORDINAZIO GUNEA

- **Koordinazio-gune orokorra.** Partaideak: Udaleko Euskara Zerbitzua, Jardun, Udal Euskaltegia. Maiztasun desberdinekin elkartu izan da. Aldi batzuetan hileroko dinamika izan du eta beste batzuetan maiztasun txikiagoa edo handiagoa.
- **Arloko edo proiektuko koordinazio-guneak:** irakaskuntzako, euskalduntze-alfabetatzeko, lan-munduko, Euskararen historia soziala... Maiztasun desberdinekin elkartzen diren lantaldeak

- **HERRIZ GAINDIKO KOORDINAZIO GUNEAK**

- **UEMA. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea.** Bergarako Udala UEMAKo kide da beste 100 herrirekin batera. Ondorioz, UEMAtik zenbait zerbitzu jasotzen dira eta hainbat ekimen bideratzen dira elkarrekin. UEMAKo teknikarien koordinazio-gunean parte hartzen da.
- **Debagoieneko Mankomunitatea eta Udalak.** Hainbat programa bideratzen ditugu bailara mailan elkarrekin. Horretarako bailara mailako lan-mahai bat dago, udaletako eta Mankomunitateko euskara teknikariek parte hartzen dutena. Une honetan esku artean dagoen egitasmo nagusia *HARIXA* programa da, lan-munduan euskara bultzatzekoa, Bergaran sortu eta bailarara zabalduko dena. Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak ere parte hartzen dute programa horretan.
- **Gipuzkoako Foru Aldundia. *Udalekin*** programa. Bertatik udalei zenbait zerbitzu eskaintzen zaizkie: formazioa, zenbait proiektu elkarrekin lantzea (kontratazioetarako hizkuntza irizpideak, adimen artifiziala, kulturartekotasuna...)
- **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.** Aurrez esan bezala, Eusko Jaurlaritzak finkatzen ditu udal planen jarraibideak eta Udal barruko planaren jarraipena ere egiten du. Horretaz gain, EAE mailako edo Euskal Herri mailako ekimenak ere bultzatzen ditu beste entitate batzuekin batera: Euskaraldia, *Barra-barra* zigilua (merkataritzan euskara bultzatzeko)...

4.2.2. *Jarrerak / Motibazioa*

HELBURUA: EUSKAL HIZTUNAK KONTZIENTZIATZEA, AHALDUNTZEA ETA AKTIBATZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
FAMILIAK	Guraso izan berriak transmisioaren garrantziaz sentiberatzeko materialak bideratu.	
	Identitatea – kontzientziaioa landu gurasoekin	<i>Familietan euskara transmititzea ez da nahikoa, identitatea eta kontzientzia ere transmititu beharko lirateke: Euskalduna izateko nahia da gakoa, nahiz eta kanpoko jatorria izan...</i>
	Diskriminazio positiboaren inguruko kanpaina egin.	
		<i>Umeekin, gurasoen hizkuntza-ohituretan eragiteko proiektua (adintarte bakoitzera egokituta):</i> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Eguneroko bat egin gurasoek duten hizkuntza-politikari buruz eta</i>

		<p><i>hausnarketa bideratu.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Momentu klabeak grabatu.</i> <p><i>Proiektuak umeei eta gurasoei sorrarazi dizkieten hausnarketak jaso.</i></p>
HEZKUNTZA	<p>UEMAren HEDATU programa bideratu ikastetxeetan.</p> <p>Ikas komunitate osoan euskararen inguruko lanketa egiteko baliabideak eskaintzen dira: ikasle, irakasle zein gurasoentzakoak. Unitate didaktikoak, formazio-saioak, tailerrak...</p>	
	<p>Ikastetxeetan, gurasoekiko bileretan sentiberatze-lana bideratu.</p> <p>HHko eta LHko gurasoak: banakako bilerak aprobetxatu, aurrez, denon artean adostu ditugun mezuak emateko.</p>	
	<p>Ikastetxeetan Gurasoen Euskara batzordeak osatzea bultzatu eta aholkularitza eskaini.</p>	
	<p>Lanbide Heziketan motibazio-saioak antolatu, ikasleen profila aintzat hartuta</p>	
HEZKUNTZA KIROLA AISIA KULTURA	<p>Irakasle eta hezitzaileentzako mintegia, jokabide linguistikoak lantzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxe bakoitzak egiten duena edo egin izan duena ezagutu. • Beste esperientzia batzuk ezagutu. • Denon artean adostu nola eragingo dugun <p>Jabekuntza eskolarekin elkarlan proiektuak egin</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskaraz oinarrizko maila bat lortzeko espazio bat eskatu dute • Bertso saioak, Txalaparta ikastaroak, lekaixo ikastaroak eta beste hainbat tailer antolatzen dituzte 	
HERRITARRAK	<p>- Euskarari buruz hausnartzeko eta formatzeko foroak sortzea. Aukerak: iritzi-artikuluak, ikerketa txikiak, lehiaketak, eztabaidak... <i>Langaiei adibideak: Euskararen zailtasunaren mitoa errefusatzea...</i></p>	<p>- <i>Beste herriein senidetzeak sortu senidetzeko arrazoitzat hizkuntza harturik.</i> <i>Antzuolarren adibidea aipatu da</i></p>

HELBURUA: EUSKARARI ETA EUSKAL KOMUNITATEARI BURUZKO PERTZEPZIO POSITIBOA HANDITZEA
ETA EUSKARARA HURBILDU EZ DIRENAK EUSKARARA ERAKARTZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
HERRITARRAK: JATORRI ATZERRITARREKOAK + BERTAKO JATORRIKOAK	Atzerritar jatorriko herritarrentzako Harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu.	<i>Jardun:</i> gaur egun jende asko joaten ei da Jardunera Goienan lan-iragarkiak jartzeko. <ul style="list-style-type: none"> • Informazio bat emateko unea izan liteke • Bestalde, lan gabe dauden bitartean aukera izango lukete zerbait ikasteko baina gaur egun ez zaie ezer eskaintzen. <ul style="list-style-type: none"> ○ Zer eskain daitekeen finkatu beharko litzateke.
	Etorkinen komunitateetan euskara erabiltzen duten erreferenteak sortzea	<i>Ndank Ndank.</i> Etorkinentzat erreferente. Familia enbaxadoreak. Familia-lagunak...
	Jatorri atzerritarrekoak eta bertakoak elkarrekin jarduteko programak antolatu, elkarrekiko harremanak euskaraz garatzeko.	<i>Gaztelekua.</i> Gazte etorri berrientzako harrera euren jatorri bereko gazteen eskutik egiten dute.
	Kulturartekotasuna eta emozioen mundua landu hainbat esparrutan.	
	Kasu edo praktika eredugarriak identifikatu eta gizarteratu. Hiztun mota desberdinak aintzat hartu eta balioa eman: ulermen maila dutenak, euskaldun berriak, euskaldun-zahar landuak...	
	Herrian euskara sustatzeko dauden eragile, zerbitzu eta laguntzen mapa osatu eta zabaldu.	

4.2.3. Ezagutza / Gaitasuna

HELBURUA: EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOAN ERAGITEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
FAMILIA	Euskara maila apaleko umeen familiei aholkularitza eskaini seme-alabei euskara ikasten lagun diezaieten.	<i>Eskolarekin elkarlanean landu.</i>
	Euskarazko kultur produktuak bultzatu: euskarazko produktuen katalogoa...	
HEZKUNTZA - HERRITARRAK	Euskararen Historia Soziala jaso eta zabaldu. (*Agintaldiko planekoa)	<i>Lan-talde propioa du, Udal artxiboak ere parte hartzen du bertan. Zenbait gai Museoarekin lantzekoak ere izan litezke: erakusketak...</i>
AISIALDIA	Aisialdiko/kiroleko monitoreekin euskarari modu eraginkor batean nola eutsi erakusteko tailerra.	

HELBURUA: EUSKARA IKASTEKO AUKERAK INDARTU ETA BERRIAK SORTZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
DERRIGORREZKO HEZKUNTZA	Euskara indargarriak antolatu haur eta gazte guztiek euskara maila egokia (gutxienez, B2) lor dezaten: <ul style="list-style-type: none"> Ikasturtean zeharreko indargarriak euskara maila apaleko ume eta gazteentzat. Gazteentzako Udako indargarriak. / LHtik gorako ikasleentzat, bereziki, LHkoek Udaleku irekiak baitituzte. Barru-ikastaroak antolatu. 	<ul style="list-style-type: none"> <i>Etorrinekin etorri berritan hizkuntza ibilbide bat (ikasketak, errefortzuak, aisia...), adostu beharko litzateke eta horren jarraipena egin beharko litzateke.</i> <i>Errefortzuetako umeei Udalekuetan Euskaltegiko sistema aplikatzea: hasieran ordaindu eta gero asistentziaren arabera itzuli.</i> <i>Gazte boluntarioak inplikatu daitezke</i>
HEZKUNTZA – LANBIDE HEZIKETA	Lanbide Heziketa euskaraz izatea bermatu eta ikasleetan D ereduan matrikulatzea bultzatu. Hasierako Lanbide Heziketa kontuan izan – Mankomunitate mailan landu beharreko gaia? Euskaltegia – Miguel Altuna elkarlana:	<i>Arreta berezia jarri Derrigorrezko Hezkuntza euskaraz egin dutenek euskaraz jarrai dezaten.</i>
		<ul style="list-style-type: none"> <i>Lan mundua baliatu euskara ikastea bultzatzeko: Lanbide</i>

	Euskalduntze prozesuak landu. Euskara eskolak + errefortzuak eskaini.	<p><i>Heziketa euskara(z) + EPA + zaintzako ikastaroak euskaraz...</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Ikasketa gunetan euskara integratu (A eredurik ez)</i>
	Lanbiden eragin ikastaro gehiago euskaraz jarri ditzan – Ziurtagiri profesionala eskaintzeko ikastaroak.	<i>Gaur egun gehienak gaztelaniaz dira.</i>
HELDUEN EUSKALDUNTZEA	<p>Helduek, bereziki guraso gazteek eta eragin handieneko arloetakoek, euskara ikasteko bideak jorratu</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara ikastea doakoa izatea lortu. • Euskara ikasteko aukera berriak landu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ulersaioak ▪ Online ikastaroak: Ingura... 	<i>Euskaraz ez dakiten 40 urtez azpiko herritarrek, orohar, jatorri atzerritarrekoak dira. Horrek eskolak kolektibo horri begirak planteamendu zabalago batekin uztartzea eskatzen du</i>
	<p>Kolektibo jakinei begirako oinarrizko ikastaroak antolatu:</p> <p>merkatariak, gurasoentzako eskolak ikastetxean, zaintzaileak...</p>	<i>Zaintza-planean jasota dago zaintzaileentzako euskara ikastaroak eskaintzea.</i>
	Lan-munduan euskara ikasteko aukerak zabaldu.	
	BERRIKETAN egitasmoa birmoldatu.	
BESTE BATZUK	Gidabaimena euskaraz ateratzea bultzatu.	

HELBURUA: EUSKARAZKO AHOZKO KOMUNIKAZIO GAITASUNA INDARTZEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
FAMILIAK	Hizkuntza transmisiorako baliabideak lantzeko tailerrak antolatu: kantu-jolasak, ipuin-kontaktak...	
HEZKUNTZA	<p>Ikastetxeekin landu ahozko komunikazio gaitasuna lantzeko lagungarriak, bereziki horretarako aukera gehien ematen duten arloekin: soin-hezkuntza...</p> <p>Hitanoa landu.</p> <p>Euskara maila jasoko gazte-taldeekin esperimentatu.</p> <p>Ahozko generoak landu eskola orduetan: Gu ere bertsotan, antzerkia...</p> <p>HEDATZE PROIEKTUA baliatuz ahozkotasuna lantzeko tailerrak eskaini: Antzerkigintza, bertsolaritza, hizkera informala....</p>	<p><i>Aplikazioak sortzea edo baliatzea, hika praktikatzeko, jolas moduan.</i></p> <p><i>Azpeitian Udalak Hedatze proiektuan parte hartzen du, errefortzu akademikoko jarduerak ez direnak</i></p>

		<i>hizkuntzarekin lotuak izan daitezzen.</i>
HEZKUNTZA KIROLA	Irakasle eta hezitzaileen adierazkortasuna handitzeko ekimenak bideratu.	
AISIA KULTURA	Hizkera informala lantzeko guneak eta baliabideak sortu eskolaz kanpo.	<i>Adibideak: Debate irekien lehiaketa sortu nerabe eta gazteentzat. Gaztelekutik bideratu daiteke hau. Herrian liga ezberdinak martxan jarri, ondoren eskualdeko lehiaketak ere egin daitezke, sari batzuk jarri.</i>

HELBURUA: ENTITATEENTZAKO EDO HERRITARRENTZAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
ENTITATEAK	Euskara indargarriak antolatzeko laguntzak Jarduni eta ikastetxeei.	
	Ahozko generoak lantzeko laguntzak ikastetxeei: Gu ere bertsotan, eskola antzerkia...	
HERRITARRAK	Udal Euskaltegitik kanpo euskaraz ikasteko laguntzak.	
	Dirulaguntzak, ikasketak euskaraz egiteko: Idazle Eskolakoei, UEUkoei...	

4.2.4. Erabilera / Elkarreragina

HELBURUA: EUSKARA OHIKO ETA NAGUSI IZANGO DEN GUNEAK (EUSKARAREN BABESGUNEAK) INDARTU EDO BERRIAK SORTU

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	Udala. Erabilera plan berezia du.	<i>Herritarrekin harreman handiena duten administrazioko arloetan jarri lehentasuna</i>
	Sortuko diren gune berriak euskararen babesgune izatea: Arrizuriaga, Elikaenea...	
HERRITARRAK	Euskaraldia bideratu.	
	Eusle dinamikak martxan jarri egunerokoan batera dauden taldeekin.	<i>Txikitik hasi, eremu jakin batetik, jarraipena errazteko, adibidez, guraso-taldeetatik...</i>
AISIA ETA KIROLA.	Kirol elkarteekin batera euskararen erabilera helburuak definitu eta	<ul style="list-style-type: none"> <i>Aisia eta kirola arnasmune izateko lanketa egin.</i>

	<p>konpromisoak hartu. (*Agintaldi planekoa)</p>	<p><i>Hezitzaileez gain, taldeetako partaideek ere euskaraz egiteko egitasmoak bideratu.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Kirol taldeetan hitzarmenak egin, batez ere, talde handietan: futbola...</i> • <i>Eskola kiroleko eta ikastetxeko koordinatzailearen artean umeen hizkuntza-gaitasunari eta erabilera-ohiturei buruzko informazioa elkartrukatu. Garrantzitsua azpitaldeak egiteko, hizkuntza-helburuak finkatzeko...</i> • <i>Oharra: Eskola kirolean aldaketak izango dira Aldundiak bultzatuta eta horren ondorioz, profesionalek pisu handiagoa izango dute.</i>
	<p>Ume guztientzako aisialdi eskaintza zabala eta irigarria bermatu uda guztian.</p>	
	<p>Gaur egun erdaraz diren aisialdi eskaintzak euskaraz izatea bultzatu.</p>	
<p>KULTUR SORKUNTZA ETA SUSTAPENA</p>	<p>Euskarazko kultur sorkuntzarako ekimenak bultzatu, bereziki, ahozko sorkuntzarekin lotuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Koldo Eleizalde lehiaketa • Bakarrizketak, laburmetraiak... 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Algaraka bezalako ekimenak antolatu.</i> • <i>Bergarara begirako lehiaketak, bideoak, aurrez aurreko saioak antolatu.</i> • <i>Ondo funtzionatzen duena kopiatu eta moldatu (Antton Telleriak sortutako pertsonaiaren antzerakoa). Euskararen inguruko hausnarketa egitea+personaia sortzea uztartu</i> • <i>Beste aukera batzuk: Podcastak, irratsaioak, umorezko esketxak, umorezko bikoizketak...</i> • <i>Kulturaren bitartez euskaraz egiten ez dutenengana heldu (umoretik erakarri)</i>

	<p>Euskarazko irakurzaletasuna bultzatu.</p> <p>Euskarazko ikus-entzunezko edukien erabilera bultzatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Kultur produkzioak euskaraz izateaz gain, sortze-prozesua ere euskaraz izatea bultzatu.</i>
	<p>Euskal musika bultzatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Komunitatearen inguruko ekimenak daudenean, aprobetxatu eta udalak lagundu euskal giroa jartzen (San Silbestre, Plaentxi-Bergara korrikan, kintadak...) 	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Kuadrilen egunean txosnetan euskal musikak arrakasta handia du. Esperientzia eta bizipen horiek oso garrantzitsuak dira. Horrelako momentu gehiago sortu.</i>
ESPARRU SOZIOEKONOMIKOA.	<p>Lan-munduan Harixa programa bultzatu (*Agintaldi planekoa).</p> <p>Programak lanketa eta garapen propioa da.</p>	
	<p>Merkataritzan. (*Berariazko lanketa egiteko)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara barra-barra ziurtagiria. • Hizkuntza paisaia euskaraz bermatu. 	<i>Hizkuntza paisaia euskalduntzeko dirulaguntzen aukera aztertu.</i>
	<p>Errenta aitortpena euskaraz egitea bultzatu.</p>	
INGURUNE DIGITALA IKUSENTZUNEZKOAK	<p>Ingurune digitalean haur eta gazteen euskarazko edukiak ugaltzeko ekimenak bideratu (*Agintaldi planekoa).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eragile antolatuek (ikastetxeak, kultur elkarteak...) sortzen dituzten edukiak (ipuin kontaketa, antzerkiak, esketxak, bikoizketa umorezkoak, aldizkari digitalak -gazteek eurek eginak-...) zabaltzeko egitasmo bateratuak bideratu. • Eragile antolatu gabeek sortutako edukiak gehitzea... Bideak: ikastaroak antolatu baliabide teknologikoak erabiltzen ikasteko, lehiaketak antolatu gazteak sortzera animatzeko, auzolan digitalak antolatu helburu jakin batekin (adibidez, euren gustuko programa bat euskaratzea...) 	<p><i>Gaia sakontzeko partaideak: Goiena, ikastetxeak, Musika Eskola, antzerki taldeak eta irakasleak, sortzaile norbanakoak.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Bailara mailan planteatu liteke?</i> <p><i>Gaia lantzeko partaideak: gazteekin, galdetegi, mintegi edo dena delakoaren bidez... Plataforma iraunkorrik lortzerik egongo litzateke?...</i></p> <p><i>*Edukiak sortzeko orduan garrantzitsua da kontuan hartzea gizonezkoen eta emakumezkoen erabilera ez dela berdina</i></p>
	<p>Adimen artifiziala eta hizkuntza teknologiak euskaraz eta euskarazko</p>	<p><i>Gaia sakontzeko partaideak: ZTBren inguruan sor liteke talderen bat? Zibergara??, Goiena, ikastetxeetako</i></p>

	babeguneak elikatzeko erabiltzea bultzatu. <ul style="list-style-type: none"> Ikastaroak antolatu adimen artifiziala eta hizkuntza teknologiak euskaraz erabiltzeko aukeren berri emateko. Gazteentzako Ikusentzunezkoen campusa bultzatu... Berrikuntzak plazaratzeko euskarriak sortu: bloga, Goienako atala?, bideoa... 	<i>informatikariak, informatika dendak???</i>
IKUSENTZUNEZKOAK	Euskarazko ikusentzunezkoen eskaintza ezagutzera eman.	<i>Udal-liburutegia: e-liburutegian badaude euskarazko pelikulak eta doan dira.</i>
HEDABIDEAK	Haur eta gazteen euskarazko aldizkariak sustatu.	
CORPUSA	Herriko izendegiak euskaraz egoki jartzea bultzatu: kale-izenak, baserriak... toponimia oro har.	

HELBURUA: ENTITATEENTZAKO EDO HERRITARRENTZAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK / GALDERAK
ELKARTEAK	Hedabideak. Goiena diruz laguntzeko hitzarmena.	
HERRITARRAK	Begirale ikastaroa euskaraz egiteko laguntza.	

4.2.5. Ikerketa

EREMUA	EKINTZAK	IRUZKINAK / GALDERAK
HEZKUNTZA	DBH2koei pasatzeko galdetegia, euskararekin lotutako askotariko gaiez: etxeko hizkuntzaz, gaitasunaz, erabilera ohiturez...	<ul style="list-style-type: none"> <i>DBH2koentzako galdetegiak pasatu izan dugu lehenago ere. Euskararen bilakaeraren behatoki egokia izan liteke.</i> Proposamena: <i>Sozializazioaren gaineko diagnostikoa egin eta hausnarketa bideratu ikasle nagusiekin. Norekin egiten dute euskaraz eta norekin ez? Zein girotan? Zergatik? Sentiberatzeko saioekin uztartu.</i>

5. Eranskinak

5.1. HERRITARREI PASATUTAKO GALDETEGIAREN EMAITZAK

1.- Galdetegiari buruzko oinarrizko azalpenak.

Galdetegia google form formularioan sortu da eta mezu bidez lotura bidali da hainbat tokitara (eskola, elkarte, enpresa...), euren taldeko herritarrei zabaltzeko. Horretaz gain, udaleko sare sozialen bidez ere zabaldu da eta Udaleko webgunean ere jarri da herritarren eskura. Berez, bi formulario sortu dira eduki berarekin: bat euskaraz eta bestea erdaraz.

2.- Galdetegia erantzun dutenen profila:

Jasotako erantzunak: 212

- Euskarazko galdetegia: 196 (%92)
- Gaztelaniazko galdetegia: 16 (%8)

Erantzuleen EUSKARA MAILA

Euskara maila	Kopurua	%
Ondo dakit	198	93
Erdizka dakit	10	5
Ez dakit	4	2

Erantzuleen ADINA

Adina	Kopurua	%
40-65	122	58
25-40	66	31
18-25	20	9
65-...	4	2

Erantzuleen GENEROA

Generoa	Kopurua	%
Emakumezkoa	172	82
Gizonezkoa	38	18
Ez-bitarra	1	0,5

3.- Jasotako erantzunak.

a) Azken urteetako **EUSKARAREN BILAKAERA**:

Azken urte hauetan, zure ustez, zure herrian euskararen erabilerak...	Kopurua	%
Behera egin du, gutxiago erabiltzen da.	130	61
Mantendu egin da, erabilera egonkortu egin da	70	33
Gora egin du, gehiago erabiltzen da.	12	6

b) Zein arlotan euskara **INDARTSUEN?**

Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera indartsuen?	
Eskolan	150
Kultura eskaintzan	117
Familia	108
Haurrean artean	95
Lagun arteko harremanak	55
Harreman instituzionaletan	66
Nagusien artean	51
Herriko merkataritzan	55
Kirolean	50
Lan harremanetan	47
Aisialdian	43
Gurasoen artean	29
Ostalaritzan	19
Sare sozialetan	10
Gazteen artean	14
Euskaraz egin nahi dutenen artean	1
Nire adin inguruko lagun artean esango nuke.	1
Elkarrizketa formaletan, zerbitzuetan	1

c) Zein arlotan euskara **AHULEN?**

Zein arlotan ikusten duzu euskararen erabilera ahulen?	
Gazteen artean	146
Sare sozialetan	135
Gurasoen artean	76
Lagun arteko harremanak	87
Ostalaritzan	64
Kirolean	64
Lan harremanetan	63
Haurrean artean	43
Aisialdian	36
Nagusien artean	46
Harreman instituzionaletan	27
Herriko merkataritzan	26
Familia	10
Eskolan	6
Kultura eskaintzan	4
Euskaraz egin nahi dutenen artean	1
Mundu digitalean	1

d) **ZEIN ARLOTAN ERAGIN** beharko litzateke?

Zure ustez, zein arlotan eragin beharko litzateke? lehentasunaren arabera: 1 lehentasun handiena eta 7 lehentasun txikiena.	Batezbestekoa
Haur eta nerabeen hizkuntza ohiturak	2,5

Ikus-entzunezkoak eta euskarazko erreferenteak	2,9
Administrazioak eskaintzen dituen zerbitzuak: udala, anbulatorioa, epaitegia, Lanbide, Ogasuna	2,9
Euskararekiko sentsibilizazioa	2,9
Lan mundua	3,0
Etorri berrien harrera eta integrazioa	3,1
Herriko euskaltzaleak elkartzeko saiakera	3,5

Galdetegian jasotako oharra edo proposamenak

- *Hausnartzea garrantzitsua da baina gauza praktikoak egitea ere bai*
- *Etorkin haurrei, euskara errefortzuez gain baliabide gehiago eman behar zaie euskara ikasteko eta eskolan beraien inguruak euskaraz hitz egin ahal izateko*
- *Euskara mailari ere garrantzia emango nioke, aberastasuna galtzen goazela uste dut.*
- *Udaleko sare sozialetako bideoan inguru anitza jartzen duzue euskara erabileraren beherakadaren arrazoi nagusi bezela, baina nire aburuz hori betiko akatsa da, akats erreza. Euskeraren erabileraren beherakadaren arrazoi nagusia, euskaldunok, euskal hiztunok, euskera ez erabiltzea da.*
- *Agian, Koldo Eleizalde (eta Jardunen Amodiozko Gutunen lehiaketaz) gain, beste lehiaketa bat antolatu daiteke: maila ezberdinak egon daitezke (umeena, gaztetxoena, gazteena eta helduena). Helburua izango litzateke euskarari buruzko lanak egitea. Izan daiteke iritzi artikuluen estiloan, ikerketa txiki baten estiloan edo biren arteko euskarari buruzko eztabaida bat, esaterako (ipuinak etab. Koldo Eleizalderako utziko nituzke). Dirua tartean dagoenean jendea animatzea errazagoa da eta, horrela, guztiak euskarari buruz hausnartzen jar daitezke (ez bakarrik euskaraz idazten).*

Bestalde, herriko euskaltzaleak elkartzeko saiakerarena asko gustatu zait. Hau aprobetxatuta, pentsatu dut horrelakoetan beti helduak elkartzeko direla, ez dago gazteen presentziarik. Talde orokor batez gain, agian, gazteen talde bat ere sor daiteke? Ez bakarrik herrian nola eragin pentsatzeko, beste hainbat gauzatarako ere balio dezake taldeak: gure artean "terapia" egiteko (momenturen batean euskaraz egin ez dugulako ez dezagun geure burua flagelatu, nahikoa egiten dugu eta), barrenak hustuz amorrua eta etsipena kanalizatu, besteen aholkuak jaso (eta aholkuak eman gainerakoei), etab.

- *Euskara sustatu eta indartzeko gakotako bat hizkuntza ludikoa bihurtzean dagoela uste dot. Eskolara doazenean eskolarekin lotzen baitute, hizkuntza akademiko bat beste edozertarako balio ez duena. Eta horri buelta ematea da zailena. Ikuspuntua aldarazi behar zaie, euskara jolasarekin lotu, aisiarekin, lagunartearrekin.... Erabilgarritasuna bizitza errealeko egoerekin froga dezatela, eta pixkanaka, haien bizitzan lehen aukera euskara izan dadila bultzatu.*

Helduekin, ordea, berbalagun bezalako programa gehiago, ekintza alternatiboak.... Ikus entzunezkoen eskaintza beti handitu daiteke.

- *Udala eredu izatea: udaltzainak, obretako langileak...*
- *Benetan gai honetan eragiten hasi behar garela, azken urteotan eman EZ diogun garrantzia ematen*
- *Udaletxeko langileak, Udaltzainak eta Osakidetzako langileak, euskeraz hitz egin behar dute.*
- *Maitasuna eta Humanitatea hizpide BETI*
- *Eskola segregazioan eragin, eskolaz kanpoko ekintza bateratuak sortu euskararen erabilera sustatzeko, etorkinen seme alabei euskaraz egin dezaten motibatuz, baino beraien esfortzuaren aitortze publikoa egin, bertako gazteen erabilera indartu*
- *Gustatuko litzaidake edozein lan publikotan lan egiteko ezinbestekoa izatea euskaraz hitz egitea. Askotan erdaraz hitz egitera behartuta sentitzen naiz.*
- *Seminarixoko eskaintzaren barruan, haurrei zuzendutako eskaintza %100 euskarazkoa izan beharko litzatekeela iruditzen zait. Jabetzen naiz ez dela nahi adina ekoizten astero euskarazko eskaintza egiteko, baina umei zuzenduta eskaintzen den guztiak euskaraz izan beharko luke, ez zait zilegi iruditzen hilabeteen umeentzako 3-4 saio egonik, horietatik bakarra izatea euskaraz.*
- *Oso triste da niretzat gazte eta haurrak gaztelan hitz egiten entzutea. Askotan, gainera, familia euskaldunetakoak izanda.*

Bestetik, nik ikusten dudanagatik, gazte eta haur horien gurasoak nahiz eta euskera primeran hitz egin, beraien aurreko hizkuntza gaztelania izaten da. Beraien artean gaztelaniaz eta seme alabei euskaraz egiten diete. Beraz, ume eta gazte horiek, normalizat dute, beraien aurrekoan nahiz eta euskeraz jakin, gaztelaniaz hitz egin dezaketela. Eredu hori ikusten dute, helduen arteko harremantzeko hizkuntza gaztelania dela, eta euskara, beste esparru batzuetarako bakarrik erabiltzen dela.

- *Nahiz eta inkesta euskarari buruzkoa izan, beharrezkoa da hizkuntza ez dakien jendeak erantzun ahal izatea. Beraz, galdetegi bi hizkuntzetan egon beharko litzateke. Dena euskaraz jartzea lortzen den gauza bakarra da ulertzen ez duen jendeak ikasteko gaitzespen handiagoa izatea.*
- *Galdetegi hori bi hizkuntzatan egingo luke, horrela gaztelania ulertzen ez duten pertsonak bakarrik baztertzen ari baitira, euskarari buruzko azterlan bat egin nahi bada ere.*
- *Hizkuntza eta kultura uztartzea*
- *Aplikazioak sortzea, Bergarako hika praktikatzeko, adibidez (jolas moduan). Orokorrean teknologikoki euskara bultzatzea.*
- *Gaiari buruz, aldameneko herriekiko harremanak sendotzea, ekimenak, topaketak... bultzatzea, esperientziak partekatzea...*
- *Cursos de Euskera nivel 0 totalmente gratuitos en horarios flexibles y se puedan compatibilizar con la familia y trabajo sin que vayan dirigidos sólo a emigrantes. Mandé por alguna Red social de Bergara Udala la propuesta del "Ajuntament d'Alcanar" Tarragona que imparte clases a partir de nivel 0 gratuitos se publicita en redes, medios de comunicación..., Ojalá tengamos esa oportunidad en Bergara. Eskerrik asko.*
- *No, gracias por tener en cuenta nuestra opinión.*
- *El euskera me parece un idioma muy bonito, respeto su idioma y cultura, pero como inmigrante se me dificulta mucho aprenderlo de la noche a la mañana como pretenden en ocasiones, llegando así al punto de "discriminar" a las personas de fuera. Muchas personas no tenemos la posibilidad de ir a clases de euskera por los horarios en nuestros trabajos, cómo en mi caso, solo tengo libre los domingos. Gracias*
- *Me gustaría que hubiese un horario más flexible para las clases de euskera por ejemplo el horario escolar para impartir a esa hora un curso para aprender euskera y aprender euskera en el mismo horario que está mi niño en clase*
- *Todos deberíamos de hablar más*
- *Hacer atractivo un idioma no significa obligar, creo que en algunos colectivos de niños y jóvenes se está empezando a entender el euskera más como una obligación que como riqueza cultural*

5.2. 2018-2022RAKO FINKATU ZIREN IRIZPIDEEN ETA EGITASMO NAGUSIEN BALORAZIOA

B1) Planaren diseinuan eta kudeaketan aintzat hartzeko irizpide orokorrak. Aurreko planetan finkatutako irizpide orokorren balorazio laburra egiten dugu hemen.

	Indarguneak	Hobetzekoak
1. Plan integrala. Udaletik lantzekoak izan litezkeen esparru gehienak lantzea.	Lehendik genuen hutsune nagusi bati (lan-munduari) heldu zaio Harixa egitasmoarekin.	Landu ez diren edo ahul landu diren zenbait esparru (merkataritza, bereziki; teknologia berriak...) landu beharra.
2. Plan bizia: udal osoarena eta gizarte osoarena.	Udal barruan tranbertsalitatean aurrera egin da: agintaldi planeko euskara sustatzeko zenbait egitasmoren ardura (kiroletakoa, gazteetan eduki digitalak sustatzekoa...) dagokion arloak hartu du.	Herritarren aktibazioan ahalegin handia egin izan da Euskaraldiarekin baina horrek ez du jarraipenik izan. Sare iraunkor bat eratu beharko litzateke.
3. Udalerriz gaingiko ikuspegia. Eskualde, herrialde eta nazio-mailako elkarlana.	Herriz gaingiko hainbat ekimen garrantzitsu berri bideratu dira: Euskaraldia nazio-mailan; lan-munduan euskara sustatzeko Harixa egitasmoa bailara mailan; nazio-mailan bultzatu da <i>Euskara barra-barra</i> egitasmoa, Bergaran ere epe motzean bideratzea espero duguna.	Lan-mundua bezala, landu beharko genuke merkataritza ere bailara mailan????
4. Aurrehartze politika: ekimen eta egitasmo berriak bereziki zaintzea, hizkuntza irizpideak ondo zehaztuta...	Lurzoru-okupaziorako ordenantzetan finkatu dira hizkuntza-irizpideak, baina ez dira zabaldu eta ez dira aplikatzen.	Merkataritzako hizkuntza paisaia hutsuneak ditugu: denda berriak zabaltzen dira Udaleko Euskara Zerbitzuak jakin gabe eta gaztelaniazko errotulazioekin...
5. Beste zeharlerroak ere aintzat hartzea.	Udaleko beste departamentu transbertsalekin (Berdintasuna, Ingurumena eta Prebentzioa) lankidetzan indartu da, bereziki, elkarrekin lanean.	

B2) 2018-2022rako egitasmoen azalpena eta balorazioa arloka. Gorago esan bezala, bi plan estrategikotan daude jasota Udalak euskara arloan bideratzen dituen jarduerak. Hemen horietako nagusiak jasotzen ditugu, esparruz esparru eta arlo bakoitzeko jardueren edo arloen gaineko balorazioak ere jaso ditugu, alde batetik, Euskara Zerbitzuarena eta, bestetik, herritarrek azaldu dituztenak

Arloak eta egitasmoak	EUSKARA ZERBITZUAREN BALORAZIOA		HERRITARREN GALDETEGIA
	Indarguneak	Hobetzekoak	Balorazioak
<p>1. Kudeaketa gaiak eta programa orokorrak</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kudeaketa ereduak: <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen gaia Udal departamentu guztien ardura izateko ereduak landu. - Euskalgintzaren herriko koordinazio-gunea hobetzea. - Hizkuntza gaiei buruzko komunikazioa hobetzea: mezu berriak, aurpegi berriak, gazte eta gazte helduak, praktika onak... ● Euskaraldia. ● Herriko Euskalgintza diruz laguntzea: Jardunekiko hitzarmena... 	<ul style="list-style-type: none"> - Bai Udalaren erabilera planean eta bai Agintaldi-planean espreski landu da udal departamentu guztiak euskara-planaren ardura izatea. - Euskaraldiaren lehenengo edizioa oso arrakastatsua izan zen eta erabileran eragin zuen. - Egitasmo berria landu da: Euskararen Historia Soziala. Gaia lantzeko lantaldea sortu da eta hainbat egitasmo bideratu ditu. - Jardunentzako lokal berria bideratu da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Euskalgintzaren herriko koordinazio-gunea hobetzeko lanketarik ez da egin eta azken urteetan bere funtzionamendua ahultzen joan da. - Hizkuntza gaiei buruzko komunikazioa hobetzeko berariazko lanketarik ez da egin. - Euskaraldiaren bigarren eta hirugarren edizioetan partehartzea murriztu egin zen eta antolaketa bera ere nekagarri gertatu zen. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Hausnartzea garrantzitsua baina gauza praktikoak behar dira. ● Euskarari buruz hausnartzeko lanak egiteko lehiaketa: iritzi-artikulu, ikerketa txiki, euskarari buruzko eztabaida... ● Herriko euskaltzaleak elkartu (gazteen taldea ere sortu), herrian nola eragin pentsatzeko eta elkar babesteko. ● Tristeia ume eta gazte euskaldunak erdaraz, baita familia euskaldunetakoak ere. Guraso euskaldun batzuen eredu kaxkarra: umeei euskaraz, euren artea erdaraz. ● Galdetegia erdaraz ere bai, ez dakitenek erantzun ahal izateko. (2 herritarrek). ● Aldameneko herriekiko harremanak sendotzea: ekimenak, topaketak, esperientziak partekatzea... ● Maitasuna eta humanitatea hizpide beti.
<p>1. Familia bidezko transmisioa</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Guraso eta hezitzaileentzako baliabideak transmisioa hobetzeko: formazio-tailerrak, sentiberatzeko materiala, euskarazko produktuen katalogoa... 		<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxeentzako aholkularitza egitasmoak ahulduaz joan dira, ikastetxeetan bertan guraso-taldean ahultzen joan diren neurrian. 	

<ul style="list-style-type: none"> ● Ikastetxeei aholkularitza, hizkuntza normalizaziorako. Helburua: ikastetxeei laguntzea gurasoak eta ikasle gazteak sentiberatzen eta aktibatzen. 			
<p>2. Irakaskuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Berbekin programa ikastetxeetan ahozkoa berbeta indartzeko. ● Euskara maila apaleko ikasleei (etorkin zein besteei) eskolaz kanpoko errefortzuak eskaintzea. ● Ikasleak sentiberatzeko UEMAren hezkuntza programa. ● Ahozko trebetasunak lantzeko dirulaguntzak ikastetxeei: Gu ere bertsotan... ● Euskararen erabilerari buruzko mintegia antolatzea ikastetxeekin. ● Lanbide Heziketa euskaraz sustatzea. ● UEUn eta Idazle Eskolan ibilitakoentzako dirulaguntzak. ● Gidabaimena euskaraz. 	<ul style="list-style-type: none"> – Ikasturtean zeharreko errefortzuez gain, etorkinen familiei transmisiorako aholkularitza eta materialak ematen zaizkie eta horretaz gain, aurten lehen aldiz DBHkoentzako udako ikastaro trinkoa antolatu da. – Ahozko trebetasunak lantzeko, bertsoaz gain, eskola antzerkia jarri da abian eta oso positiboki baloratzen da. – Gidabaimena euskaraz ateratzeko egitasmoa sendotzeko urrats garrantzitsua eman da, programan Jaurlaritza eta Autoeskolen Federazioa sartuta. 	<ul style="list-style-type: none"> – Berbekin programa bertan behera geratu zen, arrazoi desberdinengatik. – Ikastetxeekin antolatu nahi zen euskararen erabilerari buruzko mintegia ez da antolatu. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Etorkin haurrei, euskara errefortzuez gain baliabide gehiago eman behar zaie euskara ikasteko eta eskolan beraiekin inguruak euskaraz hitz egin ahal izateko.
<p>3. Euskalduntzea eta euskaraz trebatzea</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Arloko lan-mahaia. ● Euskara ikastea doakoa izateko bidea lantzea. ● Etorkinak euskarara hurbiltzeko arloko eragileen arteko elkarlana bideratzea: Caritas, EPA, SOS arrazakeria... ● AUZOKO programa indartzeko bideak jorratu. 	<ul style="list-style-type: none"> – Euskara ikastea doakoa izateko bidean zenbait urrats eman dira: 16-18 urtekoentzako C1eko ikastaroa doan. – Euskara ulermen mailan ikasteko Ulersaioak metodologia testatu zen eta positiboki baloratu zen. – Maila jasoko ikastaroetan 	<ul style="list-style-type: none"> – Egin dira zenbait ahalegin baina etorkin helduei begirako programa sendorik eraikitzerik ez da lortu: etorkinekin lan egiten dutenekin elkarlan iraunkorrik sortzea ez da lortu, Auzoko bertan behera geratu zen, ostalaritzako zerbitzariei <i>Ulersaioak</i> eskaini zitzaizkien 	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskara mailari garrantzia eman, aberastasuna galtzen ari gara. ● Berbalagunen gisako programa gehiago, ekintza alternatiboak... ● Aplikazioak sortzea, hika praktikatzeko, jolas moduan. ● Cursos gratuitos en horarios flexibles (3 bat herritarrek). ● Hacer atractivo un idioma no significa obligar, creo que en

<ul style="list-style-type: none"> • Euskara lantzeko saio bereziak: merkatarientzakoak, bertako euskarakoak... • Maila jasoko ikastaroak antolatu, ahozkoa lantzeko. • BERRIKETAN. Euskara praktikatzeko guneak eskaintzea 	<p>gorakada izan da matrikulazioan.</p>	<p>baina ez zen talderik sortu...</p> <ul style="list-style-type: none"> - Berriketan programako partaide kopurua murriztuaz joan da. 	<p>algunos colectivos de niños y jóvenes se está empezando a entender el euskera más como una obligación que como riqueza cultural.</p>
<p>4. Administrazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Administrazioko plana bideratu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Administrazioko plana maila onean bideratu da eta urrezko BIKAIN ziurtagiria lortu da. - Hurrengo urteetarako plan berria ere onartu da. 		<ul style="list-style-type: none"> • Udala eredu izatea: udaltzainak, obretako langileak... • Udaleko langileek (udaltzainak) eta Osakidetzakoek euskaraz hitz egin behar dute. • Lan publikoetan jarduteko euskara ezinbesteko izatea. Askotan erdaraz hitz egitera behartuak.
<p>5. Arlo sozioekonomikoa: lan-mundua, merkataritza...</p> <ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza, Bergara euskaraz bizi lan-mahaiaren jarduna dinamizatu. • Lan-mundua: enpresa mundurako lan-programa diseinatu. • Lanbide Heziketako eta institutu etako ikasleak informatu eta sentiberatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Merkataritza elkartek berak antolatzen dituen jardueretan euskararen erabilera zaintzen du. - Lan-mundurako HARIXA programa sortu da eta bialarara ere hedatu da. 	<ul style="list-style-type: none"> - Merkataritzara begirako lan handiena Euskaraldiarekin lotuta egin da: Ariguneekin. Aurrera begira Barra-barra ziurtagiria baliatu nahi da arlo honetan eragiteko. Merkataritza elkartearekin landu beharko litzateke???? - Merkataritzako hizkuntza paisaia erdararen presentzia areagotu da eta ez dago une honetan horri begirako egitasmorik. 	
<p>6. Arlo soziokulturala: kirola, aisia, kultura</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskolaz kanpoko jarduerak (kirola, aisia, kultura...) euskalduntzeko egitasmo berria • Kirol elkarten entrenamendu eta partidetan euskararen erabilera 	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol entrenatzaile eta aisialdiko begiraleei formazioa eskaintzen zaie. - Koldo Eleizalde lehiaketako sortze-lanak hobetzeko tailer eta ikastaroak antolatu dira interesatuentzat. 	<p>Eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzeko egitasmo berria ez da landu. Kirolean ahalegin bat egin zen baina... ELI,</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza ludiko bihurtu, umeek eskola hutsarekin lotu ez dezaten: jolasarekin lotu, aisiarekin, lagunartearekin... • Eskola segregazioan eragin, eskolaz kanpoko ekintza bateratuak... • Umeentzako Seminarixoko eskaintza

<p>sustatu, diru-laguntzetan hizkuntza irizpideak txertatuaz.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kirol entrenatzaile eta aisialdiko begiraleei euskarazko formazioa eskaini. ● Koldo Eleizalde lehiaketak. Sorkuntzarako eragina indartzeko bideak jorratu 			<p>euskaraz. Hilean 3-4 saiotatik euskarazkoa bakarria izatea gutxiegia.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Hizkuntza eta kultura uztartzea.
<p>7. <u>Corpus-lanketa: onomastika, euskalkia</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Herri hizkerako corpusak (hiztegia, toponimia, ahotsak...) ezagutarazi eta bertako edukia lantzea. ● Herriko toponimiaren erabilera egokia bultzatu, entitate nagusien izendegietan: udala, Jauriaritza, GFA, Google... 	<p>– Herriko toponimia landu da Eusko jaurlaritzarekin batera EAEko Izendegi Geografikoan izenak euskaraz egoki egoteko.</p>	<p>– euskara.bergara.eus webgunea berritzeko lan handia egin da baina amaitu gabe dago.</p> <p>– Euskaraldiaren testuinguruan HIKA bultzatzeko Hikaldia antolatu zen partehartze politarekin baina gero dinamika horri eusterik ez da lortu.</p>	
<p>8. <u>Hedabideak eta teknologia berriak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Euskal wikipedia Bergarako edukiz hornitzeko lan-taldea osatu. ● Sare sozialetan murgilduta dauden bergarrak edukiak euskaraz sortzera bideratu. ● Goienaren urteko jarduna diruz laguntzeko hitzarmena bideratu. ● Galdegazte programa ● Mundu digitalean euskara sustatzea: auzolan digitala, ZTB... 	<p>– Wikipedia hornitzeko talde txiki bat martxan dago.</p> <p>– Mundu digitalean euskara sustatzeko auzolan digitala antolatu dugu bi urtez kasu bakoitzean 80 bat lagunek parte hartuaz.</p> <p>– Bailara mailan Goienarekin bultzatutako Galdegazte programak bilakaera positiboa izan du.</p>	<p>– Sare sozialetan erabilera bultzatzeko egitasmorik ez da bideratu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Orokorrean teknologikoki euskara bultzatzea.

5.3. DIAGNOSTIKO OROKORRA

AROA 2023-2027 EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA BERGARA

DIAGNOSI TXOSTENA

2024-03-12

TXOSTENAREN EDUKIA

1.- EGOERAREN ADIERAZLE OROKOR NAGUSIAK:

1.1. Hizkuntza gaitasuna.

- 1.1.1. Datu orokorrak, bilakaera.
- 1.1.2. Gaitasuna 2021, adin-tarteka.
- 1.1.3. Gaitasun erlatiboa.

1.2.- Familia transmisioa. Lehen hizkuntza.

- 1.2.1. Lehen hizkuntza. Biztanleria osoa: bilakaera orokorra, urtez urte
- 1.2.2.- Lehen hizkuntza. Biztanleria osoa, 2021eko datuak adin-tarteka.
- 1.2.3.- Familia transmisioa oraingo guraso-belaunaldian (2 urteko umeen gurasoak).

1.3.- Etxeko erabilera.

- 1.3.1. Etxeko erabilera. Biztanleria osoa, bilakaera urtez urte.
- 1.3.2. Etxeko erabilera. Biztanleria osoa, 2021eko datuak adin-tarteka
- 1.3.3.- Bilakaera azken 10 urteetan adin-tarteka.
- 1.3.4. Etxeko erabileraren bilakaera guraso gazteetan (2 urteko umeen gurasoei galdetuta)
- 1.3.5. Guraso euskaldunen arteko erabilera.

1.4. Kaleko erabilera

- 1.4.1. Euskararen erabilera, bilakaera bosturteka (batezbestekoak).
- 1.4.2. Euskararen erabilera, adina eta generoa kontuan hartuta.

1.5.- Adierazle orokorren inguruko aurreikuspenak.

2.- EUSKARAREKIKO JARRERAK/EUSKALGINTZAREN AKTIBAZIOA

2.1. Euskararen erabilera sustatzearekiko jarrera, Gipuzkoa 2021.

2.2. Euskaraldiko partehartzea.

- 2.1.1. Norbanakoen partehartzea: ahobizi/belarriprest.
- 2.1.2. Entitateen partehartzea. Ariguneak 2022.

3.- HEZKUNTZA.

3.1.- Hizkuntza ereduak.

- 3.2. Euskararen erabilera eskola eremuan.
- 3.3. Euskara indargarriak.

4.- AISIALDIA ETA KIROLA

4.1.- Partehartzea eta hizkuntza, 2022-23 edo 2023-24 ikasturtean 18 urtez azpikoen artean: aisia, kirola.

4.2.- 18 urtez azpikoentzako jardueren hizkuntza bilakaera

5.- KULTURA ETA SORMENA

5.1.- Partehartzea eta hizkuntza, 2023-24 ikasturtean, 18 urtez azpikoen artean: kultura. Udaleko Kultura zerbitzuaren ekitaldien datuetatik.

5.2.- Udalaren kultur eskaintzaren hizkuntza.

5.3.- Udal liburutegiko maileguen hizkuntza.

6.- EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAZ TREBATZEA (Ezagutzea orokortzea helburu).

6.1.- Ez euskaldunen bilakaera urtez urte.

6.2.- Euskaltegiko ikasleak.

6.2.1.- Ikasleak mailak, bilakaera.

6.2.2.- Euskaltegiko ikasleak eta eskola-orduak

6.2.3. Entitateek ordaindutako matrikulak.

6.2.4. Ikasleen jatorria eta generoa: EHTik kanpokoak (%) / Sexua (%)

6.2.5. 2023-24 ikasturteko berritasunak.

6.3.- Euskara praktikatzeko gunea (Berriketan programa).

7.- IKUSENTZUNEZKOAK ETA SARE SOZIALAK.

UEMAren ikerketako emaitzak. LHko eta DBHko ikasleei pasatutako inkestatik.

8.- SOZIOEKONOMIA: MERKATARITZA ETA LAN-MUNDUA

8.1.- Merkataritza

- Ez dugu adierazle berriturik. Laginketa egingo dugu. Geure ezagutzatik saiatuko gara adierazle pare bat lortzen:
 - Gaitasuna
 - Hizkuntza paisaia.

8.2.- Lan-mundua

9.- UDAL-ADMINISTRAZIOA.

1.- ADIERAZLE OROKOR NAGUSIAK

Zeintzuk dira euskararen osasun-egoeraren adierazle nagusiak?

Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Adierazle Sistemari (EAS) udalerrri bakoitzeko informazio hau jasotzen da:

- **Gaitasuna:** euskaraz zenbaterik dakiten: zenbat diren hitz egiteko gai eta zenbat ulertzeko.
Gaitasunaren barruan bada beste adierazle bat: **gaitasun erlatiboa**. Hau da, kontuan hartuta, gaur egun, praktikan euskaldun guztiak gaztelania ere badakitela, bietatik zein hizkuntza dakiten hobeto. Horrek eragin nabarmena du erabileran.
- **Familia transmisioa edo Lehen Hizkuntza.** Familiek umeari bizitzako lehenengo urteetan (0-3 urte) zein hizkuntza transmititu dioten. Oso faktore garrantzitsua da, alde batetik, hizkuntzek bizirik irauteko duten bide naturala delako eta gaitasun erlatiboan eragin nabarmena duelako.
- **Erabilera.** Hizkuntza baten osasunaren adierazle nagusia da: hitzunik zein hizkuntza erabiltzen duten euren bizitzako arlo bakoitzean: etxean, lagunartean, eskolan, lanean, aisialdian... EASen udalerrri bakoitzeko biztanleen etxeko erabileraren eta kaleko erabileraren informazioa jasotzen da.

Horretaz gain, funtsezko adierazlea da biztanleek **euskararekiko duten jarrera eta atxikimendua**, bereziki kontuan izanda, ia euskaldun guztiak beste hizkuntza bat edo batzuk dakizkitela eta euskaldunak gutxiengo direla. Atxikimendu horrek eraman ditu milaka herritar euskara bultzatzeko dinamiketan murgiltzera: euskaraz ez zekitenak euskaraz ikastera, edo erdaraz hobeto moldatzen direnak ere euskaraz hitz egitera, edo euskaraz jakin barik seme-alabak euskaraz ikas dezaten animatzera edo euskararen aldeko lan boluntarioa egitera. EASen Euskal Herriko datu orokorrak datoz baina ez udalerrri bakoitzekoak.


Adierazle horiek guztiak badute elkarren arteko lotura eta elkarreragina: gaitasun handiagoak erabilera handiagoa izatea dakar normalean, baina erabilerak berak ere gaitasuna handitzea dakar; jarrera hobea erabilera bultzatzen du baina erabilera handiagoak jarrera hobea ere bultzatzen du...

Bestalde, kasu guztietan ere ez da gauza bera daturik onenak zaharrek izatea edo gazteek izatea. Hori dela eta, informazioa ematean kontuan izango dugu adinaren faktorea. Eta baita, kasu batzuetan, generoa ere.


1.1. HIZKUNTZA GAITASUNA.

1.1.1. Datu orokorrak, bilakaera. Ez dago alde nabarmenik azken 10 urteetan. 1981etik 2001era goranzko joera izan zen baina ondoren jaitsiera bat izan zen eta harrez geroztik antzera samar dago.

1. Grafikoa: *Gaitasuna, bilakaera urtez urte (%)*




1.1.2. Gaitasuna 2021, adin-tarteka



2. Grafikoa: Gaitasun adin-tarteka 2021

- Batzuei etxean irakatsi dietelako eta beste batzuk eskolan ikasi dutelako, haur eta gazteetan (20 urtez azpikoetan) praktikan ez dago euskaraz ezer ez dakienik eta %5-6 (110 bat herritar) dira euskara ulertzen dutenak baina hitz egiteko gai ez direnak, euskaldun hartzaiileak.
- 20 urtetik gorakoetan nabarmen hazten da erdaldunen eta euskaldun hartzaiileen proportzioa eta, adibidez, 20-45 urte bitartean 1100 herritar pasa dira: %18 (727 herritar) dira erdaldunak eta beste %10 (404 herritar) euskaldun hartzaiileak. Horietako gehien-gehienak Euskal Herriaz kanpo jaiok dira, etxean euskaraz ikasterik izan ez dutenak, eta, hemengo eskoletan ibilitakoak diren kasuan, osorik, behintzat, euskaldundu ezin izan direnak. Datuak guztiz bat datoz; orotara, 1086 herritar baitira adin-tarte horretan, EHtik kanpo jaiok.



3. Grafikoa: Bergararren jaiolekua, adin-tarteka

1.1.3. Gaitasun erlatiboa. Euskaldunek errazen hitz egiten duten hizkuntza. Euskararen erabilera areagotzeko oinarritzko faktorea da euskaraz errazago hitz egingo duen euskaldun multzo zabala izatea. Ez dugu gaitasun erlatiboari buruzko Bergarako informazio orokorrik. EAE mailan euskaldunen %27 da euskaraz errazago moldatzen dena. Bergara EAE baino euskaldunagoa izanik kopuru hori altuagoa izatea litzateke normalena baina biztanleria osoaren daturik ez dugunez, ez dugu ezer aurreratuko.

Aldiz, badugu, ume eta gaztetxoek informazio bat eta hori emango dugu. UEMAK 2022. urtean ikus-entzunezkoen kontsumoari buruzko galdetegi bat pasatu zien LH-4tik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei (10-18 urtekoei). Galdetegian bertan ikasleen hizkuntza ezaugarriari buruzko hainbat galdera zeuden, tartean lehen hizkuntza eta gaitasun erlatiboa. Beheko tauletan azaltzen dira jasotako emaitzak:

Lehen hizkuntza

	Euskara	Eusk. eta gazt.	Gaztelania	Beste bat
LH	63,6	23,5	9,2	3,7
DBH-Batxi	38,8	29,1	24,8	7,2

Gaitasun erlatiboa

	Euskaraz errazago	Eusk. eta gazt. berdin	Gaztelaniaz errazago
LH	54,4	28,1	17,5
DBH-Batxi	29,1	30,2	40,6


Datuek erakusten digute etxean lehen hizkuntzat euskara soilik jaso zutenetako batzuek ez dutela euskaraz errazago egiten. Izan liteke lehen hizkuntzat 0-3 urte bitartean euskara jaso arren, adinean gora egin ahala, gero etxean ere gaztelaniaz gehiago hitz egin dietelako edo etxetik kanpoko eragina etxekoa baino handiagoa izan delako.

1.2.- FAMILIA. LEHEN HIZKUNTZA.

1.2.1. Lehen hizkuntza. Biztanleria osoa: bilakaera orokorra, urtez urte.

Lehen Hizkuntza euskara izatea da euskaraz errazago egiteko faktore garrantzitsua.

Populazio guztia kontuan hartuta, %47 dira lehen hizkuntza euskara soilik dutenak, 2011n baino 4 puntu gutxiago. Gaztelania soilik dutenak mantendu egiten dira: %39. Lehen hizkuntzatzat beste hizkuntza bat dutenak ari dira gehitzen apurka: %5.




4. Grafikoa: Lehen Hizkuntza bilakaera urtez urte (%)

1.2.2.- Lehen hizkuntza, biztanleria osoa, adin-tarteka.

a) Uneko egoera. 2021.


Oro har, Lehen hizkuntza euskara dutenen proportzio handiena zaharretan dago. Gazteetan mende honetako lehenengo hamarkadan izan zen igoera nabarmena baina hori murriztu egin da eta ez da ikusten bilakaera argi bat.



5. Grafikoa: Lehen hizkuntza biztanleria osoa adin-tarteka 2021

b) Bilakaera, adin-tarteka, azken 10 urteetan (2011-2021).

- Praktikan ia adin-tarte guztietan jaitsi da lehen hizkuntza euskara soilik dutenen proportzioa.




6. Grafikoa: Lehen hizkuntza euskara soilik 2011-2021

Aldaketa horiek zeren eraginez gertatu dira? Bi fenomeno gertatu dira:


1. Lehenena barne-bilakaerari lotutakoa: Zaharretan dago lehen hizkuntza euskara dutenen proportziorik handiena. Horiek hil ahala, lehen hizkuntza euskara dutenen proportzioa jaisten ari da zaharretan, 60 urtez gorakoetan.
2. Migrazioari lotutakoa: 50-55 urtez azpikoetan migrazioaren eraginez jaitsi da. EAEz kanpo jaiotakoen kopurua nabarmen handitu da 10 urteotan (300 bat herritar gehiago) eta EAEn jaiotakoen gutxiago egin dira (140 gutxiago).

1.2.3.- Familia transmisioa oraingo guraso-belaunaldian: 2 urteko umeen gurasoak.


- **Gaur egun zein mailatan transmititzen da euskara?** Ikastetxeekin elkarlanean, 2 urteko umeen gurasoei urtero galdetzen diegu euren gaitasunari, familia transmisioari eta etxeko erabilerari buruz eta hauek dira datuak (batezbestekoak urte-multzoka):



Ikus litekeenez, azken urteetan jaitsi egin da euskaren erabilera, bai guraso-ume artekoa eta baita umearen eta anai-arreben artekoa. Gurasoen gaitasunean izandako jaitsieraren ondorioa da. Hona hemen gaitasunean izandako bilakaera:



Bi urteko umeen gurasoen gaitasuna jaistearren arrazoia gurasoen belaunaldi horretan jatorri atzerritarreko familiak ugaltzean dago. Hona hemen 2023-2024 ikasturtean ikasleen zein portzentaia diren Jatorri atzerritarreko familietako seme-alabak.



10. Grafikoa: Jatorri Atzerritarreko Familietako Ikasleak, ikasmailaka 2023-2024 (%)

Baina zer gertatzen da hizkuntza transmisioarekin bi gurasoak euskaldunak direnean. Praktikan %100ean transmititzen da euskara eta, gainera, praktikan %90ean bi gurasoek euskara soilik transmititzen dute. Familia banaka bat bada bi gurasoetako batek beste hizkuntza bat egiten diena ere. Bi gurasoak euskaldunak direnean, gainera, 2 urteko umeak anai-arrebekin duen harremana ere euskaraz da.

Gurasoetako batek ondo dakienean ere guraso horrek euskaraz egiten dio kasik beti (%90etik gora) 2 urtekoari beste gurasoak ulertzen duenean, baina kasu horretan anai-arreben hizkuntza erabilera nabarmen samar jaisten da. Beti euskaraz egiten dietenak %60 inguru dira eta gainerako %40an denetik dago: batzuk gehienbat euskaraz eta beste batzuk gehienbat gaztelaniaz. Normala den moduan, bai guraso-ume eta bai anai-arreben arteko erabilera areago jaisten da gurasoetako batek ezer ez dakienean.


Aspaldiko urteetan oso bikote gutxi dira bi gurasoek zerbait edo guraso batek ezer ez eta besteak zerbait dakitenak.

Beraz, datuon arabera, 2 urtekoek anai-arrebekin beti edo gehienetan euskaraz egiteko baldintza da gurasoetako batek berba ondo egitea.

1.3.- ETXEKO ERABILERA.

1.3.1. Etxeko erabilera. Biztanleria osoa. Bilakaera orokorra, urtez urte.


Euskara hutsaren erabilera jaisten jarraitzen du eta une honetan 1991tik honako inoizko baxuena da: %35. Gaztelania hutsarena antzera samar dago eta, ostera, indartzen ari dira, alde batetik, bi hizkuntzak, euskara eta gaztelania, erabiltzea (%20) eta beste hizkuntza bat erabiltzea (%4).




11. Grafikoa: Etxeko erabilera, bilakaera %

1.3.2. Etxeko erabilera. Biztanleria osoa, adin-tarteka.


a) Uneko egoera, 2021.



b) Bilakaera, adin-tarteka, azken 10 urteetan (2011-2021). Euskara hutsaren erabilera praktikan adin-tarte guztietan murriztu da eta bi hizkuntzera berriz adin-tarte guztietan igo da.




1.3.4. Etxeko erabileraren bilakaera guraso gazteetan. 2 urteko umeen gurasoei galdetuta eskuratutako datuak dira honakoak:



15. Grafikoa: Etxeko Erabileraren bilakaera 2 urtekoen gurasoen artean (%)

Euskara hutsaren erabilera 20 puntu igo zen 2007-2009 hirurtekoetik 2013-2015era baina harrez gero egonkortuta dago eta beste hizkuntzen erabilera indartu da. Ikusi egin beharko da zer bilakaera duen baina pentsatzekoa da guraso gazteen hizkuntza gaitasuna murrizten doan heinean erabilera ere apaltzen joango dela.

1.3.5. Guraso euskaldunen arteko erabilera. Zein neurritan egiten dute euskaraz etxean bikoteko biak euskaldunak direnean?



16. Grafikoa: Bi gurasoak euskaldunak direnean beti euskaraz egiten dutenen % Iturria: 2 urteko umeen gurasoei galdetuta


Jasotako datuen arabera atxikimendu hori handitu egin da guraso euskaldunen artean. Ikusi egin beharko da hurrengo datu-bilketetan hori mantentzen den.

1.4. KALEKO ERABILERA

1.4.1. Euskararen erabilera, adin-tarteka. Bilakaera bosturteka (batezbestekoak). Kaleko erabilera maiztasun desberdinez neurtu izan da, aldi bakoitzean: batzuetan urtero, beste batzuetan bi urtez behin... Hemen 5 urteko epeetako batezbestekoak ematen ditugu.

Kaleko erabileraren bilakaera adin-tarteka, 5 urteko batezbestekoak

Urtea	1983-89	1991-95	1996-2000	2001-2005	2006-2010	2011-15	2017-21
Haurrak (0-14)	57	63	60	62	62	62	63
Gazteak (15-24)	18	39	43	48	47	52	45
Helduak (25-65)	34	27	27	30	37	43	41
Zaharrak (65-..)	60	44	42	32	35	33	28
GUZTIRA	37	39	40	41	45	47	45




Datuek erakusten digute azken urteetan jaitsiera txiki bat izan dela.

1.4.2. Kaleko erabilera, adina eta generoaren arabera. Urtez urteko neurketek erakusten dute generoaren arabera emaitza desberdinak daudela kaleko erabileran. Aldea, gainera, nabarmen handiagoa da adin-tarte batzuetan: 0-14 urte bitartekoetan eta, batez ere, 15-24 urte bitartekoetan. Bi kasuetan emakumeek gehiago erabiltzen dute. Dugun ahulgune nagusietako bat, hain zuzen, horixe da: adin-tarte horietako mutilen erabilera apala.

Kaleko erabileraren bilakaera generoaren eta adin-tartearen arabera.

	0-14		15-24		25-64		65-...	
	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.
1997	58	52	58	45	19	24	29	38
2001	93	54	58	34	36	26	53	32
2002	61	46	54	22	33	26	17	17
2003	65	52	67	41	30	26	34	36
2004	71	61	63	36	32	26	22	22
2005	70	54	60	32	39	35	39	23
2006	71	70	53	48	44	38	50	54
2007	61	54	55	48	38	36	34	34
2008	68	55	71	37	38	33	31	34
2009	66	50	47	20	35	30	28	32
2010	63	61	54	27	39	38	32	37
2011	62	54	55	24	36	36	26	26
2013	70	59	63	33	48	41	34	41
2015	69	58	65	55	49	46	40	31
2017	69	59	51	27	43	37	23	24
2021	74	52	66	38	47	44	29	36

Kaleko erabileraren bilakaera generoaren arabera, 15-24 urte bitartekoetan (%)



18. Grafikoa: Kaleko erabileraren bilakaera generoaren arabera, 15-24 urte bitartekoetan


- *Betaurreko morea: Gelaz kanpoko jardueretan ere hizkuntza eta generoa loturik doaz. Neskek, oro har, aisialdi arautuan hartzen dute parte eta kulturarekin lotutako jardueretan, eta hizkuntza-irizpideak askoz arautuagoak eta garatuagoak daude musika-eskola, dantza, antzerkia eta antzeko arloetan. Mutilek, aldiz, kirolak egiten dituzte bereziki, eta hor egoera kaskarragoa da hizkuntzari dagokionez.
- Hala ere, euskara nagusi den herrietan gizonen hizkuntza portaera bestelakoa izan daiteke (horietan ere gehiengoari jarraituz). Gizonezkoen hizkuntza praktikak hizkuntza erabilienaren aldekoak izan ohi baitira.

1.5.- ADIERAZLE OROKORREN INGURUKO AURREIKUSPENAK. Gorago esan dugun moduan bi fenomeno aurreikusten ditugu.

Barne bilakaera. Zaharrenen euskara adierazleak (Lehen hizkuntza, etxeko erabilera...) apaltzen joango dira oraindik urte batzuez, hiltzen direnek baino datu apalagoak baitituzte eurak baino gazteagoek.

Migrazioa. Lehenengo eta behin, kontuan hartu beharreko faktorea da gazte euskaldunen emigrazioarena. Adibidez, 2017ko urte hasieran Bergaran 1040 herritar ziren Gipuzkoan jaioak 20-29 urte bitartekoak (1988-1997 urteetan jaioak). 2023an urte horietan jaiotako gipuzkoarren kopurua ia %10 txikiagoa zen.

Baina, zalantzarik barik eragin handieneko faktorea **inmigrazioa** izango da. Ikus azpiko grafikoan Bergarako une honetako biztanleriaren egitura adin-tarteka.



19. Grafikoa: Biztanleria adin-tartearen eta sexuaren arabera 2022

Adin-tarte jendetsuena 55-59 urte bitartekoa da (urte bakoitzean 240 biztanle inguru, denera 1.196). 45-65 adin-tarteetan ere 200dik gora bizilagun daude urte bakoitzeko. Moltzo horretako zaharrenak lan-mundutik irteten joango dira. Horiek ordezkaturako dituzten belaunaldiak (20-30 urte bitartekoak), berriz, askozaz murriztagoak dira (urteko 150 bizilagun bezala beharagoak guztiak). Horrek esan nahi du kanpoko jende asko etortzeko aukera guztiak izango direla.

Migratzaileak herrialdeka eta zenbat diren jatorriz gaztelania hiztunak. Ikasturte honetan (2023-2024an) eskoletan matrikulatuta dauden ikasleen datuak aztertu ditugu. Hona hemen euren familiak zein jatorritakoak diren eta horietako zenbat diren gaztelania-herrialdeetakoak:

Jatorri atzerritarreko familietako ikasleen gurasoen jatorria (0-16 urteko ikasleenak).		<ul style="list-style-type: none"> • Gaztelania-herrialdeetakoak: 222 (%56) • Gaztelaniarik gabeko herrialdeetakoak: 171 (%44)
Maroko	77	
Espainia	55	
Pakistan	46	
Sahara	35	
Kolonbia	31	
Venezuela	27	
Bolivia	22	
Honduras	14	
Txina	11	
Nikaragua	9	
Ekuador	8	
Portugal	7	
Aljeria	6	
Argentina	6	
Dominikar Errepublika	6	
Errumania	5	
Senegal	5	
Nigeria	4	
Peru	4	
Kuba	4	

2.- EUSKARAREKIKO JARRERAK / EUSKALGINTZAREN AKTIBAZIOA

2.1.- Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera (Gipuzkoa, 1991-2021). Gorago esan bezala, EASek (Euskararen Adierazle Sistemak) ez du herrietako daturik ematen eta horregatik Gipuzkoakoa emango dugu. Euskal Herri mailan 5 urtean behin egiten den Inkesta Soziolinguistikoko datuak dira. Ikusten denez, aldekoak eta oso aldekoak kontuan hartuta, %75-80 inguru dira joan deneko 15 urteetan, eta aurkakoak eta oso aurkakoak oso kopuru txikia dira eta jaisten joan dira, gainera.

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera (Gipuzkoa, 1991-2021). Iturria: Inkesta soziolinguistikoa. EAS.

	2021	2016	2011	2006	2001	1996	1991
Oso aldekoa	29	29	32,6	38,1	18,9	21,4	28,1
Aldekoa	47,4	45,7	42,5	38,2	47,6	37,7	31,8
Ez alde ez aurka	20,4	20,4	20,1	18,2	27,6	33,6	31,3
Aurkakoa	2,9	3,9	4,2	4,4	5,1	6,6	7,4
Oso aurkakoa	0,3	1,1	0,6	1,1	0,7	0,6	1,3

2.2. Euskararen aldeko aktibazioa, Euskaraldiko parte hartzea. Euskararen aldeko jarrerak izatea garrantzitsua izanik ere, are garrantzitsuagoa da jarrera hori jarrera aktiboa izatea. Horri lotuta, Euskaraldian Bergaran izandako parte-hartzearen berri emango dugu jarraian.

2.2.1. Norbanakoen parte-hartzea: ahobizi/belarriprest.

a) Parte-hartzearen bilakaera motaren eta generoaren arabera.

ZER	Kopuru absolutuak			%		
	2018	2020	2022	2018	2020	2022
Ahobizi	2833	2582	2465	82,8	82,8	82,7
Belarriprest	590	537	517	17,2	17,2	17,3
Emakumeak	2063	1798	1764	60,3	57,6	59,1
Ezbinarioak	22	19	14	0,6	0,6	0,5
Gizonezkoak	1338	1302	1204	39,1	41,7	40,4
Aurrekoan bai		2376		76,2		
Aurrekoan ez		743		23,8		
GUZTIRA:	3423	3119	2982			

Ikusten denez, kopuru absolutuetan jaitsiera bat izan zen lehenengo ediziotik hurrengoetara, baina esan beharra dago, alde batetik, tartean pandemia izan zela eta, bestetik, lehenengo urtean Bergara izan zela proportzioan parte hartze handiena izan zuen herria.

b) Parte-hartzearen proportzioa adin-tarteka, Euskaraldia 2020. Partaideak adinka, parte hartu ahal zutenekin konparatuta (euskaldun+ia euskaldunen).

Adin-tartea	Euskaldun+ ia euskaldun	Euskaraldiko partaide	Partaideen %, parte har zezaketenenekin konparatuta
16-25	1.251	451	36
26-35	1.289	470	36
36-45	1.808	755	42
46-55	1.887	668	35
56-65	1.533	475	31
66-75	1.176	187	16
76-85	892	81	9

*Euskaldun + ia euskaldun kopuruak: 2011ko Eustaten datuetatik estrapolatuta.

Parte-hartze handiena 36-45 adin-tartean izan zen, guraso gazteen adinean. Aipagarria da gazteetan ere parte-hartze handia izan zela.

2.1.2. Entitateen partehartzea Euskaraldian: Ariguneak. 2022

a) Parte hartzea guztira:

Urtea	2020	2022
Entitate kopurua	218	192

b) Partehartzea arloka 2022

	Arloa	Entitate kopurua
Esparru sozioekonomikoa	Merkataritza eta zerbitzu profesionalak (abokatuak, iturginak, gimnasioak, telefonia, estetika zentroak...)	94
	Ostalaritza	7
	Finantza eta aseguruak	6
	Industria	24
Zerbitzu publikoak eta hezkuntza	Herri administrazioa	4
	Osasuna	13
	Hezkuntza	8
Esparru soziokulturala	Gizarte mugimendua	9
	Kultura	16
	Kirola	5
	Bestelakoak	6
	Guztira	192

3.- HEZKUNTZA.

3.1.- Hizkuntza ereduak.

- a) **Derrigorrezko Hezkuntza eta Batxilergoa.** Derrigorrezko hezkuntzako eta Batxilergoko ikasle guztiak D ereduari dabilten herriko ikastetxe guztietan.
- b) **Lanbide Heziketa.** Herriko bi ikastetxetan ematen da Lanbide Heziketa. Mariaren Lagundian eskuhartze sozialeko bi ziklo eskaintzen dira eta biak D ereduak dira. Miguel Altunan, berriz, nagusiki industriara begirako formazioa eskaintzen da eta D ereduari zein A ereduari eskaintzen dira ikasketak.

Hizkuntza ereduari dagokionez, azken hamarkadan D ereduak beharrezko joera izan du erdi-mailako zikloetan eta goi-mailako zikloetan berriz egonkorrago izan da.

Esan beharra dago goi-mailako zikloetan, Miguel Altunan badagoela multzo zabal bat (azken ikasturteetan 100 ikasle inguru eta 2023-24an 120) gaueko ikastaroetan edo eskaintza partzalean dabilena eta horiek A ereduan dabiltzala. Kopuru horiek ere sartuta daude azpiko taulan.

Lanbide Heziketako ikasleen bilakaera hizkuntza-ereduaren arabera. Mariaren Lagundikoa + Miguel Altunakoa.

Ikasturtea	D ereduan (%)		Erdi-maila, kopuruak			Goi-maila, kopuruak		
	Erdi-maila	Goi-maila	A	D	GUZTIRA	A	D	GUZTIRA
2013-14	58	69	45	63	108	98	272	394
2014-15	60	75	37	55	92	99	295	394
2015-16	70	65	31	72	103	149	275	424
2016-17	56	56	49	61	110	217	279	496
2017-18	55	61	52	64	116	197	310	507
2018-2019	61	60	59	91	150	190	288	478
2019-2020	51	59	71	74	145	220	323	543
2020-2021	51	59	71	74	145	218	308	526
2021-2022	45	61	77	63	140	202	319	521
2022-2023	46	63	76	66	142	199	337	536
2023-2024	52	62	68	74	142	210	346	556

- c) **HHI/EPA.** Helduen Heziketa Iraunkorreko ikastetxean 80 ikasle dabilta 2023-2024 ikasturtean eta eskolak gatzelaniaz ematen dira. Ikasleen %98 jatorri atzerritarrekoa da.

3.2. Euskararen erabilera eskola eremuan. Ez dugu eskola eremuetako euskararen erabileraren datu xeherik. Edonola ere, berriki neurketa egin dugu herriguneko ikastetxeetako eskola-irteeretan, 6 urtetik 18 urtera bitarteko ikasleak kontuan hartuaz, eta jaso den euskararen erabilera guztira %26koa izan da.

Berez, oso emaitza baxua da kontuan hartuta joan deneko 20 urtean umeen (0-14 urtekoen) kaleko erabilera %60 ingurukoa izan dela eta gazteena (15-24 urtekoena) %40-50 inguruan ibili dela.

Sakon aztertu beharreko gaia da zeren eta badirudi une honetan zenbait kasutan eskola eremua bera ere faktore erdalduntzaile sakona dela ikasle batzuentzat.

3.3. Euskara indargarriak. Hainbat ikaslek zailtasunak dituzte euskararen aldetik eta, hori dela eta euskara indartzeko saioak jasotzen dituzte, batzuk eskola orduetan eta beste batzuk eskola orduz kanpo. Indargarriak jasotzen dituztenen artean gehientsuenak jatorri atzeritarreko familietako seme-alabak (JAFIak) dira baina badira bertako gurasoak dituzten batzuk ere.

Hona hemen 2023-2024 ikasturtean eskaini izan diren errefortzu mota guztiak eta bakoitzean dabilzan ikasle kopuruak.

MAILA	IKASLE KOPURUA	JAFI kopurua	JAFI %	HIPI ikasleak kopurua	Eskolaz kanpoko indargarriak ikastetxeak	Eskolaz kanpoko indargarriak Jardun/Euskaltegia	Familia aholkularitza
0-1 urte	9	3	33				
1-2 urte	52	3	6				
HH 2 urte	98	17	17				8
HH 3 urte	99	33	33				
HH 4 urte	92	34	37		38		
HH 5 urte	118	26	22				
LH 1	105	16	15	4			
LH 2	116	23	20	12			13
LH 3	144	28	19	16	10	75	
LH 4	140	20	14	10			
LH 5	147	25	17	13			
LH 6	152	19	13	9			
DBH 1	187	22	12	6		18	
DBH 2	203	30	15	6			
DBH 3	201	28	14	3			
DBH 4	175	39	22	4			
Batxilergoa 1	135	16	12				
Batxilergoa 2	110	7	6				
GUZTIRA	2.283	389	17	83			

JAFI: jatorri atzeritarra (Euskal Herritik kanpoko) duen familiako ikaslea

HIPI ikaslea: Jatorri atzeritarra duten ikasleetatik HIPI (hizkuntza-indartze programa) duena.

Errefortzu-mota bakoitzari buruzko azalpena:

- **HIPI (*Hizkuntza Indartze Programako Ikasleak*):** LH eta DBHn ematen zaie JAFI etorri berriei lehenengo bi urteetan. Ikastetxean bertan ematen da eskola orduetan.
- **Eskolaz kanpoko indargarriak, ikastetxeek ematen dituztenak.** Udalak diruz lagunduta, hala nahi duten ikastetxeek ematen dituzte.
- **Eskolaz kanpoko indargarriak, Jardunek eta Udal Euskaltegiak ematen dituztenak.** Jardunek LHkoei ematen dizkie saioak Udalak diruz lagunduta eta Euskaltegiak DBHkoei.
- **Familia aholkularitza.** Jardunek eskaintzen die Udalak diruz lagunduta. Helburua bereziki JAFIen gurasoei aholkua eta laguntza ematea da euren seme-alabei euskara gaietan lagun diezaieten.

Esan beharra dago euskara indargarrietan dabilzan ikasleen kopuru horiek nabarmen hazi direla azken urteetan (10 urtean, bikoiztu egin dira) eta ematen duela aurrera ere hazten jarraituko dutela.

4.- AISIALDIA ETA KIROLA

4.1.- Partehartzea eta hizkuntza, 2022-23 edo 2023-24 ikasturtean, 18 urtez azpikoen artean: aisia, kirola.

a. Aisialdia

		Partaid.	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorki.	Eus %
Elkartek	Txapligu	113	30	83	27	73	1	100
Udala	Gaztelekua	369*	209	160	57	43		100
	Udaleku irekiak	395	192	203	49	51	57	100
	AIDAU ludoteka	401	169	232	42	58	240	100

*Gaztelekua: Izena emanda 369 pertsona. Batez besteko erabilera aste barruan 20 pertsona eta aste bukaeran 50.

* AIDAU ludoteka: 401 bat izen-emate dituzte baina ez dira 401 ume (aforo kontuak direla eta, izen-emateen bitartez funtzionatzen dute eta ume batzuk behin baino gehiagotan daude kontaktuta). Ohiko egunetan, astean 84 bat ume joaten dira AIDAURA (horietatik 33 etorkin). Ekintza bereziak dituztenean ere 80 bat ume joaten dira astean, baina etorkinen kopurua 2ra jaisten da.

b. Kirolak

		Partaid.	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorki.	Eus %
Elkartek	Pilota	84	80	4	95	5	1	100
	Igeriketa	69	21	48	31	69	0	100
	Ziklismoa	44	35	9	80	20		100
	Eskubaloia	100	30	70	30	70	2	100
	Karatea	57	20	37	65	35		100
	Piraguismoa	9	5	4	56	44		100
	Futbol eskola	181	123	58	68	32	12	100
	Futbol federatua*	237	191	46	81	19	6	81*
	Saskibaloia	115	64	51	56	44	7	82*

	Gimn. erritmikoa	62		62		100		100
	Mendia	216	101	115	47	53		100
	Hockey-a	78	39	39	50	50		100
Udala	Eskola kirola	594	360	234	61	39		100
	Igeriketa ikastaroak	328	167	145	51	49		100
	Multitraining	16	4	12	25	75		100
	Udako kirol campusa	264	142	122	54	46		100

Oharrak:

- Futbol federatua: % 81 euskaraz; gainerakoek bi hizkuntzetan jasotzen dituzte entrenamenduak
- Saskibaloia: %82 euskaraz; gainerakoen erdiak bi hizkuntzetan jasotzen ditu entrenamenduak eta beste erdiak gaztelaniaz.

4.2.- 18 urtez azpikoentzako jardueren hizkuntza bilakaera.

		Euskaraz + nagusiki euskaraz (kirolarien %)		
		2013/14	2017-18	2022-23
Elkartek	Futbol federatua	47	73	81
	Futbol eskola	74	100	100
	Saskibaloia	79	61	82
	Eskubaloia	100	100	100
	Pilota	100	100	100
	Igeriketa	100	100	100
	Gimn. erritmikoa	33	57	100
	Piraguismoa	0	100	100
	Ziklismoa	100	100	100
	Hockey-a	–	100	100
	Karatea	100	100	100
	Mendia	100	100	100
	Guztira	73	79	93

Igoera saskibaloian kirolari asko izan zirelako eta horietan ehuneko handia euskaraz.

Udala	Eskola kirola	100	100	100
	Igeriketa ikastaroak	100	100	100
	Spining gazte	100	100	–
	Zumba	–	100	–
	Multitraining	–	100	100
	Udako kirol campusa			100
Entitate pribatuak	Karatea Giartzu	Ez dugu daturik		

5.- KULTURA ETA SORMENA

5.1.- Partehartzea eta hizkuntza, 2023-24 ikasturtean, 18 urtez azpikoen artean: kultura.

a. Kultura arloa

		Partaid.	Mut	Nes	Mut %	Nes %	Etorki.	Eus %
Elkartek	Musika eskola	649*	209	440	32	68	4	99
	Antzerki eskola	20	2	18	10	90		100
	Bertso eskola	7	2	5	29	71		100
	Euskal dantzak ME	59	5	54	8	92		100
	Euskal dantzak. Moises Azpiazu							100
	Orfeoi gaztea	10	1	9				100
Entitate pribatuak	Candem Twon	Ez dugu daturik						

Oharrak:

- *Musika eskola, 649 partaide: ez daude 649 lagun matrikulatuta eskolan, pertsona berak jarduera bat baino gehiagotan har dezakeelako parte.

5.2.- Udalaren kultur eskaintzaren hizkuntza. Udaleko Kultura zerbitzuaren ekitaldien datuetatik.

- Zinema kenduta, Udalak antolatzen dituen eta ahozko hizkuntza oinarri nagusi duten kultur jardueren (antzerki, hitzaldi, ikastaro, ipuin-kontaketa eta abarren...) %90 inguru dira euskaraz.
- Zinemaren kasuan, 2023an eskaini ziren filma guztien %13 izan ziren euskaraz, horietatik gehienak haurrentzakoak. Haurrentzako filmen %40 izan ziren euskarazkoak.

5.3.- Udal liburutegiko maileguen hizkuntza. 2023ko datuak.

a) Bazkideak.

Helduak			Haurrak (14 urtera arte)		
Guztira	Gizonezko	Emakume	Guztira	Gizonezko	Emakume
4811	1938	2873	1146	567	579
	%40	%60		%49	%51

b) Maileguak. Generoaren eta adinaren arabera.

	Guztira	Kopuru absolutuak		%	
		Euskaraz	Gaztel.	Euskaraz	Gaztel.
Heldua, gizonezkoa	1906	327	1579	17	83
Heldua, emakumea	6563	976	5587	15	85
Haurra, gizonezkoa	2749	1697	1052	62	38
Haurra, emakumea	3730	2286	1444	61	39


*Betaurreko moreak: Eremu gehienetan parez pare lanean emakume- eta gizon-kopuru bertsua edo emakume gehiago dauden arren, kanon hegemonikoak

gizonezkoek osatzen dituzte euskal kulturari nahiz literaturari, eta publikoki entzuten diren ahots gehienak gizonezkoenak dira. Gero, Euskal Herriko emakumeek mantentzen dute kultura, emakumea da euskal kulturaren kontsumitzailea, literaturarena bereziki, hein handi batean eta kulturarena, oro har, hizkuntza batean zein bestean. Hori Europa osoko joera da.

6.- EUSKALDUNTZEA / EUSKARAZ TREBATZEA

6.1.- 15-49 urte bitarteko “ez-euskaldun”en (erdaldunen + ia-euskaldunen) bilakaera urtez urte.


	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
15-24	1.077	820	394	166	316	149	130	142
25-34	950	1.044	1.012	780	565	553	385	373
35-50	1.226	1.302	1.368	1.367	1.370	1.439	1.238	1.065
GUZTIRA	3.253	3.166	2.774	2.313	2.251	2.141	1.753	1.580



20. Grafikoa: Ez-euskaldunen bilakaera, urtez urte (%)

6.2. Euskaltegiko ikasleak.

6.2.1.- Ikasleak mailak, bilakaera.




21. Grafikoa: Euskaltegiko ikasteka mailak, bilakaera

*GAINERAOKAK: Hika eta euskalkiko akatsak lantzeko taldeak. AUTOIKASKUNTZAko ikasleak sartzeke.

Datuak erakusten digutenez, azken urteetan murriztu egin da maila baxuko ikastaroetan izena emandakoen proportzioa eta gora egin du goi mailakoenak. Proportzio hori nabarmen areagotu da 2023-2024 ikasturtean 16-18 urteko ikasleei eskolak doan jasotzeko aukera eskaini baitzaie eta 73 ikaslek eman baitute izena.

6.2.2.- Euskaltegiko ikasleak eta eskola-orduak



6.2.3. Entitateek ordaindutako matrikulak.

Ikasturtea	IVAP	Enpresa	Justizia	Irale
22-23	11(%8,8)	-	-	-
21-22	4 (%2,7)	-	-	-
20-21	7 (%3,2)	-	-	-
19-20	6 (%3,5)	1 (%0,5)	-	-
18-19	9 (%3,9)	2 (%0,8)		74 (%31,7)
17-18	5 (%3,5)	6 (%4,2)	2 (%1,4)	1 (%0,7)
16-17	6 (%4,1)	1 (%0,7)	-	-
15-16	6 (%3,8)	7 (%4,5)	-	1(%0,6)
14-15	12 (%6,5)	8 (%4,3)	-	1(%0,6)
13-14	13 (%7,8)	16 (%9,6)	3 (%1,8)	-

6.2.4. Ikasleen jatorria eta generoa: EHTik kanpokoak (%) / Sexua (%)

Ikasturtea	EspainiaFrantzia	Atzerria	Gizona	Emakumea	Ez-binarioa
22-23	13.6	22.4	31.2	68.8	0
21-22	12	15	36.4	63.6	0
20-21	15.4	16.6	37.3	62.7	
19-20	15.2	11.7	35.1	64.9	
18-19	13.1	19.5	29.7	70.3	
17-18	16	18.2	36	64	
16-17	14.3	18.3	40	60	
15-16	9.3	16.7	40.7	59.3	
14-15	6.5	20.6	40	60	
13-14	15.5	18.2	30.5	69.5	

6.2.5. 2023-24 ikasturteko berritasunak:

- C1 mailako ikastaroa antolatu da doan 16-18 urtekoentzako: 73 lagun
- Miguel Altuna: ikasleen talde bat osatu da A1ekoa (9 lagun)

6.3. Euskara praktikatzeko gunea (Berriketan programa):

- **Berriketan:** Une honetan, 35 *bidelari (euskara praktikatu nahi dutenak) eta 12 bidelagun (euskaldunak)* dabilza. Azken urteetan partaide kopuruak behera egin du. Orain dela 10 bat urte 45-50 bidelari inguru ziren.

7.- IKUSENTZUNEZKOAK ETA SARE SOZIALAK.

UEMAk ikus-entzunezkoei buruzko galdetegi bat pasatu zien 2022. urtean LHko 4. mailatik Batxilergora bitarteko ikasleei. Komeni da aipatzea garai hartan ez zegoela PRIMERAN plataforma, ez dakigun arren zenbat ikusten duten plataforma horretako edukia.

a) Telebista eta plataformetan ikusten dituzten **telesail eta marrazki bizidunen hizkuntza:**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesez	Ez du ikusten
LH	10,1	79,7	1,8	5,1
DBH-Batxi	6,8	73	10,4	3,6

b) Entzuten duten **musika:**

	Euskaraz / Batez ere euskaraz	Gaztelaniaz / Batez ere gaztelaniaz	Berdin euskaraz edo besteetan	Beti edo batez ere beste hizkuntzatan
LH	13,8	27	35	23,5
DBH-Batxi	4	50	16,9	29,1

c) **Bideo-jokoak:**

	Euskaraz	Gaztelaniaz	Ingelesa edo beste	Batere ez
LH	6,5	68,7	33,2	14,3
DBH-Batxi	0,7	51,4	14,4	33,5

d) **Sare sozialak:**

- **Ikusten dutena**

LH							
	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdints u eusk. edo gazt.	Ingel.	Berdintsu eusk. edo ingelesez	Berdintsu gazt. edo ingelesez	Ez du erabiltzen
Youtube	7,4	52,1	19,4	2,8	1,8	12,4	4,1
Twitch	0,9	18,4	1,4	1,4	0,5	1,8	75,6
Tiktok	2,8	35,9	6,0	1,8	0	8,3	45,2

DBH-BATXI							
	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ingel.	Berdintsu eusk. edo ingelesez	Berdintsu gazt. edo ingel.	Ez du erabiltzen
Youtube	1,8	53,2	3,2	6,5	1,1	26,3	7,9
Twitch	0	27,7	0,7	0,4	0	7,9	63,3
Tiktok	1,4	41,1	3,2	4,0	1,1	29,5	18,7

- **Sortzen dutena:**

	LH				DBH-BATXI			
	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ez du ezer igotzen	Batez ere eusk.	Batez ere gazt.	Berdintsu eusk. edo gazt.	Ez du ezer igotzen
Twitch	2,3	12,0	1,4	82	0,4	29,1	1,4	63,3
Tiktok	0,5	19,4	2,8	73,3	0,7	13,3	0,7	81,3
Instagram	2,3	5	2,3	89,9	5,4	32,7	14,7	42,8

- **Txateko hizkuntza:** DBHko eta Batxilergoko ikasleei galdetu zitzaien zein hizkuntzatan hitz egiten duten eta zein hizkuntzatan txateatzen duten.

	Etxekoekin euskaraz	Lagunekin euskaraz
Zuzenean	52,2	38,2
Txatean	48,0	39,6

8.- SOZIOEKONOMIA: MERKATARITZA ETA LAN-MUNDUA. Oro har, ez daukagu arlo sozioekonomikoari buruzko hizkuntza informazio osorik. Hala ere, zenbait adierazle solte emango ditugu.

- **Bergarako enpresa hornitzaileek udalari egindako aurrekontuen hizkuntza (%). 2023ko datuak.** (900-9000 euro bitarteko kontratuetan).

% Euskaraz	% Bietan	% Gaztelaniaz
36	9	55

- **Bergarako enpresek udalera bidalitako idatzien hizkuntza (%). 2023ko datuak.** (Denetarikoen enpresak daude, (merkataritza arlokoak, industriakoak...) eta gaia ere edozein izan liteke:

taberna batek terraza jartzeko egindako eskaria edo enpresa batek obra egiteko egindako eskaria. Eskaeraren dokumentua hartzen da kontuan; ez erantsitako dokumentuak. Horietan erdarazkoen kopurua nabarmen handiagoa izango litzateke.)

% Euskaraz	% Gaztelaniaz
42	58

*Betaurreko morea: **Lan-munduan, emakumeek bete ohi dituzten lanbideetan, pertsonentzako zerbitzuetan oro har (irakaskuntza, osasungintza) euskararen eskaera eta erabilera altuagoa da. Izan ere, nahiko gune feminizatuak euskaldundu dira.** Era berean, gutxien euskaldundu diren lanbideetako batzuk ere, lanbide feminizatuak dira, batez ere, garbiketa eta zaintzari lotutakoak.

8.1.- Merkataritza.

- Ez dugu adierazle berriturik. Laginketa egingo dugu. Geure ezagutzatik saiatuko gara adierazle pare bat lortzen:
 - Gaitasuna
 - Hizkuntza paisaia.

8.2.- Lan-mundua.

- Euskara planak dituzten industria enpresak: 5
- HARIXA hitzarmenean parte hartzen duten entitateak: 38.
- Lan-praktiketako hizkuntza erabilera, Bergarako enpresetan:

% Euskaraz	% Bietan	% Gaztelaniaz
%41	24	32

9.- UDAL ADMINISTRAZIOA.

Berez, Udal administrazioak aparteko euskara plan bat du onartuta baina hala ere, interesgarri iruditu zaigu bertako zenbait adierazle ematea, udaleko planak herrikoarekin ere lotura duelako.

a) Udal barruko funtzionamendua.

- **Idatzia.** Udal barruko funtzionamendu idatzia euskaraz da % 94an.
- **Ahozkoa.** Udal barruko bilerak, berriz, euskaraz dira ia %100

b) Kanpo harremanak.

Idatzia.

Irteerak. Udalaren idatziak kanporako: Udalak kanpora bideratzen dituen idatzi guztiak euskaraz edo elebietan dira.

	Herritarrak	Entitate pribatuak	Erakunde publikoak
Irteerak. Euskarazkoen % (2024ko hasierakoak) Gainerakoak elebietan.	27	35	49

Sarrerak. Udalera datozen idatziak.

	Herritarrak	Entitate pribatuak	Erakunde publikoak
Sarrerak. Euskarazkoen % (2023, Internetekoak bakarrik)	53	47	49

Ahozkoa.

Herritarrak Udal zerbitzuekin ahoz (%)

	BAZ	AGORROSIN	Laboratorium	Guztira
Herritarrak euskaraz udal zerbitzuetan (%) 3 egunetako neurketak	43	65	60	58